

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa

Arautegi Akademikoa

Master ikasketak

2020-2021 Ikasturtea

ARRASATE, 2020ko urriaren 13a

0. ALDAKETEN HISTORIALA

Bertsioa	Data	Egindako aldaketa
V.7	2020.10.13	1.- 'IX.- ELKARBIZITZARAKO JOKABIDE ARAUAK' atalean ondoko eskubideak txertatu dira: - Bakartuta edo berrogeialdian dauden ikasleek ere klaseak jarraitu ahalko dituzte. 2.- 'VII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA' atalean ondoko bi eskubideak txertatu dira - Kontrol puntuak online eran ere egin ahal izango dira kasu jakin batzuetan.
V.6	2020.09.16	1.- Dokumentuan dauden datak eguneratzea ikasturte berrira egokitzeko. 2.- Araudi honen esparru diren lege erreferentziak eguneratu. 3.- Sistema Txertatuetakoa Unibertsitate Masterrari buruzko informazio guztia ezabatu da. 4.- VI. atalean (MATRIKULA) azpial bat txertatu da: Industria Ingeniaritzako Masterrean ikasketak otsailen hasteko aukera. 5.- VII "ebaluazio jardueri buruzko jarraibideak" azpi atalean "Ebaluazio jardueri buruzko jarraibideak" izeneko azpi atal bat gehitu da 6.- (ELKARBIZITZARAKO JOKABIDE ARAUAK) izeneko atala sartu da 7.- VII. Atalean (IRAKASPENEN EBALUAZIOA) espresuki adierazi da araudi honetan zehar jasotako arauak ez betetzea, falta arin edo larritzat har daitekeela.
V.5	2019.09.16	1.- Dokumentuan dauden datak eguneratzea ikasturte berrira egokitzeko. 2.- Titulu berriak sartu. 3.- Araudi honen esparru diren lege erreferentziak eguneratu. 4.- Ikasleek egin behar dituzten formazio osagarrien inguruko informazioa eguneratzea. 5.- VII atalean (IRAKASPENEN EBALUAZIOA) azpial bat txertatu da: 'KALIFIKAZIO SISTEMA'. 6.- Araudiaren testu osoa berrikusi da hizkuntza inklusiboaren erabilera sustatzeko
V.4	2018.09.10	1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko. 2.- IX atala aldatu (GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU ETA MAILA HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK). 3.- Atal berri bat gehitu: X atala. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO EALKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK. 4.- X ataletik aurrera araudiaren atalei zenbaki berria eman. 5.- XI atala aldatu. (EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK). 6.- Atal berri bat gehitu: V. Eranskina (MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA)
V.3	2017.02.07	1.- Arautegi honetan zehar gehitu Teknologia Biomedikoetako Unibertsitate Masterrari buruzko gaiak. 2.- Praktiken iraupen berria + Industria Ingeniaritzako Masterraren MBL proiektua sartu dira. 3.- SARBIDEA ETA ONARPENA IV. atala sinplifikatu egin da. 4.-KREDITUEN AITORPENAREN V. atala sinplifikatu egin da. 5.-Matrikulatzeko baldintzak aldatu egin dira (6. atala.- MATRIKULAK) 6.- IKASKETEN EBALUAZIOAREN 7. atala aldatu egin da.
V.2	2016.09.26	1.- VII atalean 'Irakaspenen ebaluazioa' puntu kontrol baten iruzur egiteak edo lanen baten edo txostenen baten kopiazeak, eta abar,... ekar dezakeen ondorio akademikoa zehaztu da. 2.- IX atala gehitu: 'Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako ikasleen eskubideak.' 3.- X atala gehitu: 'Ezgaitasunak dituzten ikasleen eskubideak'. 4. IX eta X atal berriak sartzearen ondorioz aldatu diren gainontzeko atalen zenbakiak egokitu dira.
V.1	2016.06.03	1.- Dokumentuan dauden datak eguneratzea ikasturte berrira egokitzeko.

		<p>2.- 'Produktuen eta Elkartutako Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterra' izendapena 'Produktu eta zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterra' izendapenarekin eguneratu da.</p> <p>3.- Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoko unibertsitate masterrari dagokion ECTS-en banaketari buruzko informazioa eguneratu da.</p> <p>4.- Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoko unibertsitate masterrera iristeko informazioa eguneratu da.</p> <p>5.- 'MBL-AREN ETA ELKARTUTAKO PRAKTIKEN MATRIKULA HAINBAT ALDIZ (MBL-AREN AURKEZPENA EZ BADA EGITEN DEN IKASTURTEAN BERTAN BAIMENTZEN)' atalean MBL modalitate bat gehitu da: 30 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL.</p> <p>6.- 'IRAKASPENEN EBALUAZIOA' atalean MBL modalitate berri bat gehitu da: 30 - ECTS praktikak + 30 ECTS MBL.</p> <p>7.- 'UNIBERTSITATE MASTERRERA IRISTEA ETA ONARTZEA' atalean Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Masterrera sartzeko irizpideak gehitu dira.</p> <p>8.- 'MATRIKULA' atalean zehaztu egin da online modalitateko ikasleak egongo direla.</p> <p>9.- 'IRAKASPENEN EBALUAZIOA' atalean 'EBALUATZEKO MEKANISMOAK' azpiatala gehitu da ikasleen nortasuna egiaztatze erabiliko diren mekanismoak zehaztuz ikasgaien MBLaren aurkezpena ebaluatze orduan.</p> <p>10.- 'IRAKASPENEN EBALUAZIOA' atalean 'NORMATIVA DE PERMANENCIA' azpiatala berria gehitu da.</p>
--	--	---

AURKIBIDEA

0. ALDAKETEN HISTORIALA	2
I.- SARRERA	5
II.KONTZEPTUAK	6
III. UNIBERTSITATE MASTERREN EGITURA	8
IV. UNIBERTSITATE MASTERRERA IRISTEA ETA ONARTZEA	9
V. KREDITUEN AITORPENA	16
VI. MATRIKULA	19
VII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA	23
VIII. IKASLE IZATEARI UZTEA	32
IX. ELKARBIZITZARAKO JOKABIDEA ARAUAK	33
X. GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK.	36
XI. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK.	40
XII. EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK	43
XIII. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA	47
XIV. ESPARRUA ETA ESKUMENAK	49
I. ERANSKINA – LAN ESPERIENTZIAGATIK LORTUTAKO KREDITUAK AITORTZEKO PROZESUA	50
II.ERANSKINA- GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA	53
III. ERANSKINA.- IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA	56
IV. ERANSKINA.- EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIK ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA	59
V. ERANSKINA- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA	62

I.- SARRERA

Goi Eskola Politekniko (GEP) honetako Masterreko ikasketa unibertsitarioen irakaslan eta jardura akademikoa urriaren 29ko 1393/1997 Errege Dekretuaren¹ babespean garatzen da, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak MONDRAGON UNIBERTSITATEARI homologatu dizkion ikasketa planetan oinarrituz.

2008-2009 ikasturtean Eskola Politekniko honek Masterreko ikasketak ezartzeko prozesuari ekin zion, Europako Goi Hezkuntzako Espazioari egokituta. 2010-2011n Master ikasketa hauek martxan jarri eman zitzaion buru prozesu horri.

Masterraren izenburua	Definitutako ibilbideak
Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterra	a) Espezializazio akademikoa. b) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).
Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritzako Masterra	a) Espezializazio akademikoa.
Industria Ingeniaritzako Masterra (Mekanika Estrukturaleko espezialitatea eta Material eta Prozesuetako espezialitatea)	a) Espezializazio akademikoa. b) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).
Energia eta Potentzia Elektronikako Masterra	a) Espezializazio akademikoa. b) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).
Teknologia Biomedikoetako Masterra	a) Espezializazio akademikoa. b) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).
Datuen analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei- Konputazioko Masterra	c) Espezializazio akademikoa. d) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).
Robotika eta Kontrol Sistemetako Masterra (‘Sistema autonomoak’ espezialitatea eta ‘Automatizazioa’ espezialitatea)	e) Espezializazio akademikoa. f) Ikerketa lanen hastapena (masterra amaitu ondoren, doktoretza ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei zuzenduta).

Honako txosten honek, bere ataletan zehar, Masterreko ikasketak arautzen dituzten arauak jasotzen ditu.

¹ 1393/2007 Errege Dekretua hainbat aldiz aldatu da. Aldaketa horiek BOEn argitaratu dira, egun hauetan:

- 1. aldaketa: 2007/10/03an argitaratua
- 2. aldaketa: 2011/02/10ean argitaratua
- 3. aldaketa: 2013/07/13an argitaratua
- 4. aldaketa: 2014/03/05ean argitaratua
- 5. aldaketa: 2014/11/22an argitaratua
- 6. aldaketa: 2015/02/03an argitaratua
- 7. aldaketa: 2015/06/17an argitaratua
- 8. aldaketa: 2016/06/03an argitaratua
- 9. aldaketa (azkena): 2019/03/15an argitaratua

II.KONTZEPTUAK

UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA OFIZIALEN EGITURA BERRIA

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren (harrezkero hainbat aldiz aldatuta²) 37. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu zuen) ezarritakoari jarraiki, unibertsitate irakaskuntza ofizialak hiru ziklotan egituratzen dira: GRADUA, MASTERRA ETA DOKTORETZA.

Hona hemen artikuluek diotena hitzez hitz jasota:

“Artículo 37. Estructura de las enseñanzas oficiales.

Las enseñanzas universitarias se estructurarán en tres ciclos: Grado, Máster y Doctorado. La superación de tales enseñanzas dará derecho, en los términos que establezca el Gobierno, previo informe del Consejo de Universidades, a la obtención de los títulos oficiales correspondientes.

Artículo 38. Doctorado.

Los estudios de doctorado, conducentes a la obtención del correspondiente título de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, que tienen como finalidad la especialización del estudiante en su formación investigadora dentro de un ámbito del conocimiento científico, técnico, humanístico o artístico, se organizarán y realizarán en la forma que determinen los estatutos, de acuerdo con los criterios que para la obtención del título de Doctor apruebe el Gobierno, previo informe del Consejo de Universidades. En todo caso, estos criterios incluirán la superación de un periodo de formación y la elaboración, presentación y aprobación de un trabajo original de investigación.”

GRADUKO IKASKETAK³ (1393/2007 Errege Dekretutik hitzez hitz jasota): *“Las enseñanzas de Grado tienen como finalidad la obtención por parte del estudiante de una formación general, en una o varias disciplinas, orientada a la preparación para el ejercicio de actividades de carácter profesional.*

La superación de las enseñanzas previstas en el apartado anterior dará derecho a la obtención del título de Graduado o Graduada, con la denominación específica que, en cada caso, figure en el RUCT (Registro de Universidades, Centros y Títulos).”

² Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hainbat aldiz aldatu da. Aldaketa horiek BOEn argitaratu dira, egun hauetan:

Hasierako testua: 2001/12/24

1.aldaketa: 2005/06/07

2.aldaketa: 2007/04/13

3.aldaketa: 2011/06/02

4.aldaketa: 2012/04/21

5.aldaketa: 2013/07/02

6.aldaketa: 2013/12/10

7.aldaketa: 2014/09/17

8.aldaketa: 2015/09/12

9.aldaketa: 2016/03/23

10.aldaketa: 2017/06/28

11.aldaketa: 2018/07/04

12.aldaketa: 2018/12/06

Azken aldaketa: 2020/05/06

³ Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 9.artikulua

MASTERREKO IKASKETAK⁴ (1393/2007 Errege Dekretutik hitzez hitz jasota hitzez hitz jasota): *“Las enseñanzas de Máster tienen como finalidad la adquisición por el estudiante de una formación avanzada, de carácter especializado o multidisciplinar, orientada a la especialización académica o profesional, o bien a promover la iniciación en tareas investigadoras.*

La superación de las enseñanzas previstas en el apartado anterior dará derecho a la obtención del título de Máster Universitario, con la denominación específica que figure en el RUCT.”

ECTS KREDITUA: ECTS kreditua da ikasleek ikasketa plan batean programatutako helburuak gainditzeko egin beharreko lan bolumen edo lan karga neurtzeko hartutako unitatea. ECTS bat ikasle baten 25-30 lanorduri dagokio. GEP honetako ikasketa planetan, ECTSari 25 lanordu esleitu zaizkio.

Illo horretan, funtsezko alde bat dago egungo kreditu sistemarekin alderatuta, izan ere, egungo sistemak irakasleak ematen duen ordu kopurua baino ez du kontuan hartzen, irakasleak aurreikusitako helburuak lortzeko ikasleak egin beharreko ahaleginari erreparatu barik.

Ikasturte batek 60 ECTS dauka, hau da, 1500 ordu. Horrek esan nahi du ikasleak 1500 orduko dedikazioa bete behar duela ikasturtean zehar, kontuan hartuta eskola orduak, gehi talde laneko denbora, gehi laborategietan edota informatika geletan egindako praktika orduak, gehi lan pertsonala.

TITULUARI EGINDAKO GEHIGARRI EUROPARRA: Agiri ofiziala da, eta Goi Hezkuntzako titulazioen gardentasuna handitzeko zehaztu eta diseinatu zen. Gehigarri horri esker, titulazioen aitortpena, ikasleen mugikortasuna eta ikasleok Europako lan merkatuan integratzea erraztuko dira.

Bertan, modu pertsonalizatuan, kasuan kasuko ikasleari dagokion informazio hau bilduko da: egindako ikasketak, lortutako emaitza akademikoak, hartutako gaitasun profesionalak eta goi hezkuntzako sistema nazionalen haren titulazioak duen maila.

NAHITAEZKO IRAKASGAIK: MGEPek sartzen dituen ikasgai komunak dira, ikasketa horiek egiten dituzten ikasleek derrigor bete beharrekoak.

AUKERAKO IKASGAIK: MGEPek beste bi edo gehiagoren artean hautatzeko sartzen dituen ikasgaiak dira, ikasleek beren prestakuntza ibilbidea osatu ahal izan dezaten.

ENPRESAKO PRAKTIKAK: Enpresako praktikak MASTER BUKAERAKO LANAREN garapenari loturik daude. Eta ibilbide akademikoa egitea erabaki duten ikasleek egiten dituzte.

MASTER BUKAERAKO LANAK: Arautegi hau osatzen duten ikasketa guztiak MASTER BUKAERAKO Lan batekin bukatzen dira. Ikuspegiak eta helburuak desberdinak dira, ikasleak ikasketak bukatzean aukeratutako orientazioaren arabera: lan munduan sartzea, edo Doktoretza ikasketak jarraitzea (bigarren kasu honetan, MASTER BUKAERAKO LANA ikerketa lan bat da, bere horretan).

⁴ Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 10. artikulua

III. UNIBERTSITATE MASTERREN EGITURA

Ondoko taulan, unibertsitate masterreko titulu bakoitzaren ikasketa planaren funtsezko ezaugarriak laburbiltzen dira. Bertan, zera zehazten da: ikasketen iraupena; tituluaren kreditu kopuru totala eta kredituen banaketa gai motaren arabera; ea tituludunek eskudantzia profesionalik izango duten aitorturik ala ez; eta titulua zein ezagutza adarri atxikitzen zaion.

Unibertsitate Masterreko ikasketak:	Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterra	Enpresa berrikuntza eta proiektuen zuzendaritza	Industria Ingeniaritza (Mekanika Estrukturalako espezialitatea eta Material eta Prozesuetako espezialitatea)	Energia eta Potentziako Elektronika	Teknologia biomedikoak
IKASGAI MOTA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA
Nahitaezkoak	30	45	52,5	70	60
Aukerakoak	60	-	37,5	20	15
Kanpoko praktikak	-	7	-	-	-
MASTER BUKAERAKO LANA	30	8	30	30	15
GUZTIRA	120	60	120	120	90
IKASKETEN IRAUPENA	2 URTE	1 URTE	2 URTE	2 URTE	1,5 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
TITULUA ZEIN EZAGUTZA ADARRETA KOA DEN	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura

Unibertsitate Masterreko ikasketak:	Datuen analisisa, Zibersegurtasuna eta Hodei-Konputazioa	Robotika eta Kontrol Sistemak
IKASGAI MOTA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA
Nahitaezkoak	54	30
Aukerakoak	21	45
Kanpoko praktikak	-	-
MASTER BUKAERAKO LANA	15	15
GUZTIRA	90	90
IKASKETEN IRAUPENA	1,5 URTE	1,5 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK	EZ	EZ
TITULUA ZEIN EZAGUTZA ADARRETA KOA DEN	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura

IV. UNIBERTSITATE MASTERRERA IRISTEA ETA ONARTZEA

SARBIDE ETA ONARPEN BALDINTZAK MASTERRETAN

Unibertsitate master batean hasi nahi duten ikasleek indarreko legedian ezarritako sarbide eskakizunen bat bete beharko dute (RD1393/2007)⁵. Hori dela eta, ondoren, master bakoitzerako eskatzen diren sarbide tituluak zehaztu dira; baita master bakoitzaren baldintza eta onarpen irizpideak ere:

.... Unibertsitate	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Masterra:		
Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterra	<p><u>Sarbide zuzena:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ondoko ikasketa ofizialak dituzten unibertsitate tituludunak: Industria Diseinuko Graduatuak eta hauen honen baliokideak. <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingeniaritza eta arkitektura adarrera atxikitako ikasketa ofizialak dituzten unibertsitate tituludunak: Egin beharko dituzte – lehendik eginda ez badute- ondoko formazioa Komunikazio bisuala (4 ECTS) eta Diseinuaren metodologia (4 ECTS). 	<p>Ikasleak onartzeko bi irizpide hauek hartuko dira kontuan: ikasleen curriculum akademikoa (aurretiazko formazio egiaztatua) eta espediente akademikoa.</p> <p>Sartzeko ez da irizpide eta baldintza edo proba berezirik ezartzen.</p>

⁵ *Unibertsitate master batean hasi nahi duten ikasleek hauek eskakizunen bat bete beharko dute:*

- a) *Master honetara iritsi ahal izango dira –formazio osagarririk gabe– aurretiaz ikasketa hauek egin dituzten eta Espainiako unibertsitate titulu hauek onartzen dituzten ikasleak;*
- b) *Masterrera iritsi ahal izango dira atzerriko goi mailako titulu bat duten ikasleak, Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruko goi mailako hezkuntzako erakunde batek emandakoa, titulua eman duen herrialdean Masterreko ikasketak egiteko gaitasuna bermatzen duena. Kasu horretan, masterrean zuzenean sartzea onartuko da, edo aurretiazko formazio osagarriarekin, atzerriko tituluak aurreko a), atalean aipatutakoekin duen parekagarritasunaren arabera.*
- c) *Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrutik kanpokoak diren hezkuntza sistemetako tituludunak ere sartu ahal izango dira, tituluak homologatu beharrik gabe, baldin eta Unibertsitateak egiaztatzen badu titulu horiek Espainiako unibertsitate titulu ofizialei dagokien pareko prestakuntza maila dutela, eta titulua eman duen herrialdean graduatu ondoko ikasketak egiteko gaitasuna adierazten badute. Kasu horretan, Masterrean zuzenean sartzea onartuko da, edo aurretiazko formazio osagarriarekin, atzerriko tituluak aurreko a) atalean aipatutakoekin duen parekagarritasunaren arabera.*

IV. Unibertsitate Masterrera iristea eta onartzea

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Enpresa berrikuntza eta proiektuen zuzendaritza	<p><u>Sarbide zuzena:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingeniaritza eta arkitektura adarrera atxikitako ikasketa ofizialak dituzten unibertsitate tituludunak. <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zientziak eta Juridikoak, Zientziak eta Osasunaren Zientziak lantzen dituen jakintza arloko Espainiako titulu ofizial bat duten ikasleek (Enpresa gaiko 4 ECTS egin behar dute) ■ Arteak eta Humanitateak lantzen dituen jakintza arloko Espainiako titulu ofizial bat duten ikasleek, (Enpresa eta Estatistika gaietako 8 ECTS egin behar dute) 	<p><u>Irizpideak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslearen espediente akademikoa 2. Elkarrizketa pertsonala hautagaiarekin 3. Ingelesko B2⁶ maila 4. eta gaztelania ez bezalako hizkuntza ofiziala duten atzerriko ikasleei gaztelaniako B2 eskatuko zaie

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Industria ingeniarietza	<p><u>Sarbide zuzena:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Industria Ingeniari Teknikoaren lanbidean jardun dezaketen unibertsitateko titulurik badute. ■ Halaber, masterrera sarrera ahalbideratuko da, interesdunaren tituluak egiaztatzen badu oinarritzko prestakuntzaren modulua eta adarraren modulu komuna egin dituela, baita teknologia espezifikokoaren modulu oso bat egin ez badu ere, baina bai graduiko tituluko modulu baten blokeen multzoan eskaintzen diren kredituetatik 48 kreditu, zeinak Industria Ingeniari Teknikoaren lanbidean jarduteko prestatzen duen, Industria Ingeniari Teknikoaren lanbidean jarduteko unibertsitate titulu ofizialak egiaztatze baldintzak ezartzen dituen CIN/351/2009 Ministro Aginduaren arabera⁷. ■ Gainera, kontuan hartuko da Industria Ingeniaritza Teknikoko eta Industria Ingeniaritzako Zuzendarien Konferentziak erabakitakoa. ANECari bidalitako akordio horren agiriaren 2. atalean esaten denez, Industria Ingeniaritzak (graduiko eta masterreko ikasketak) honako hauek izan behar ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez 180 ECTS komun, oinarritzko prestakuntzako derrigorrezko ikasgaien graduaren eta masterraren artean, industria eta teknologia espezifikoen adarrerako komunak eta derrigorrezkoak, CIN/351/2009 Maren arabera. Teknologia espezifikoen ikasgaiak, gutxienez, aipatu MAn definitutako teknologi espezifikoen hiru multzo desberdinetakoak izango dira, bloke bakoitzeko gutxienez 6 krediturekin. - Gutxienez 24 ECTS, graduaren eta masterraren artean, matematiketako kompetentzia espezifikokoak bermatzen 	<p><u>Irizpideak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleen curriculum akademikoa (aurretiazko formazio egiaztatua) 2. espediente akademikoa. 3. Ingelesko B2 maila 4. Gaztelania ez bezalako hizkuntza ofiziala duten atzerriko ikasleei gaztelaniako B2 maila edo baliokidea eskatuko zaie.

⁶ Europako Hizkuntzetarako Erreferentziako Esparru Komuna: Ikaskuntza, Irakaskuntza, Ebaluazioa)

⁷ Industria Ingeniari Tekniko lanbidean jarduteko prestatzen duten unibertsitate titulu ofizialak egiaztatze eskakizunak ezartzen dituen agindua

IV. Unibertsitate Masterrera iristea eta onartzea

	<p>dituzten derrigorrezko ikasgaietakoak izan behar dira (estatistika barne), eta gutxienez 12 ECTS fisikako kompetentzia espezifikoak bermatzen dituzten derrigorrezko ikasgaietakoak izan behar dira. Aipatu kompetentziak CIN/351/2009 MAren oinarritzko prestakuntzako moduluaren barruan daudenei dagozkie.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez intentsifikazioko 24 ECTS graduaren eta masterraren artean. - Gutxienez 24 ECTS Gradu Bukaerako Lana eta MASTER BUKAERAKo Lana batuta. <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ikasleek egin beharreko formazio osagarria kasuan kasuko aztertu eta finkatuko da. 	
--	---	--

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Energia eta Potentzia Elektronika	<p><u>Sarbide zuzena:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Industria Ingeniari Teknikoak, Elektrizitateko espezialitatea ■ Industria Ingeniari Teknikoak, Industria Elektronikako espezialitatea ■ Elektronikako Ingeniariak ■ Industria Antolaketako eta Industria Elektronikako Ingeniariak ■ Aipatutakoen pareko Gradu eta Master tituluak dauzkaten ikasleak <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Meatzeetako Ingeniari Teknikoa ■ Meatzeetako Ingeniaria ■ Telekomunikazioko Ingeniari Teknikoa ■ Telekomunikazioko Ingeniaria ■ Sistemen Informatikako Ingeniari Teknikoa ■ Informatikako Ingeniaria ■ Ontzigintzako Ingeniari Teknikoa ■ Ontzigintzako Ingeniaria eta Ozeanikoa ■ Nautika eta Itsas Garraioko Lizenziatua ■ Fisikako Lizenziatua ■ Industria Ingeniaria ■ Aipatutakoen pareko Gradu eta Master tituluak dauzkaten ikasleak <p>Master honetara iritsi ahal izango dira ondoren zehazten diren tituluak dauzkaten ikasleak, betiere gai hauetakoren bat ikasten ari badira –lehenago ez badute ikasi–:Zirkuituen teoria (6ECTS); Elektroteknia (6ECTS); Erregulazio automatikoa (6ECTS); Mikroprozesagailuak (6ECTS) eta Bihurgailu estatikoak (6ECTS)</p>	<p><u>Irizpideak:</u></p> <p>1. Ikasleen curriculum akademikoa (aurretiazko formazio egiaztatua) eta espediente akademikoa.</p>

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Tecnologia Biomedikoak	<p><u>Sarbide zuzena</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Biomedikoko Gradua edo antzekoa ■ Ingeniaritza Biomedikoko Masterra edo antzekoa <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea</u></p> <p>Ingeniaritza alorrean MECESeko 2 mailari edo antzeko mailari dagozkion goi hezkuntzako ikasketak egin dituzten ikasleek,</p> <p>Ingeniaritza Biomedikoko Graduko edo antzeko edo Ingeniaritza Biomedikoko Masterreko edo antzeko titulazioak ez bestelako titulazioetatik datozen ikasleek eskuratuta izan behar dituzten kompetentziak.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Animalien zelulen egitura eta funtzioa ezagutzea, bai eta haien bizitza zikloa eta mekanismo erregulatzailerak ere, zelulen egituren eta alterazioen ikuspegi osotua eskuratzeko, molekula mailan zein maila estrukturalean eta funtzionalean, gizakien patologiek alderatuta. 2. Seinaleak prozesatzeko sistemak diseinatu, garatu eta kudeatzea. 3. Egitura mekanikoak analizatu, kalkulatu eta diseinatzea, tentsioak eta deformazioak analizatuz. 4. Osagai mekaniko bat diseinatzea bere zehaztapenetan oinarrituta eta materiala aukeratzea, geometria definituz eta dimentsionatuz. 5. Biomaterialen propietateak ezagutzea, Ingeniaritza Biomedikoko problemetan zuzen erabiltzeko. <p>Kompetentzia horiek eskuratu ezean, irakasgai hauek egin beharko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Oinarri medikoak (6 ETCS), 1. eta 5. kompetentziak eskuratu ez badute. b) Bioseinaleak eta seinale prozesamendua (6 ETCS), 2. kompetentzia eskuratu ez badute. e) Biomekanika (4,5 ETCS), 3. eta 4. kompetentziak eskuratu ez badute. 	<p><u>Irizpideak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Ikasleen curriculum akademikoa (aurretiazko formazio egiaztatua) eta espediente akademikoa. 2. Ikasleei ingeleseko B2 maila edo baliokidea eskatuko zaie masterrean onartuak izan ahal izateko (Europako Hizkuntzetarako Erreferentziatzko Esparru Komuna: Ikaskuntza, Irakaskuntza, Ebaluazioa). 3. Eta gaztelania ez bezalako hizkuntza ofiziala duten atzerriko ikasleei gaztelaniako B2 maila edo baliokidea eskatuko zaie.

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidia ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Datuen analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei-Konputazioa	<p><u>Sarbide zuzena</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Informatika arloko Gradu, Master, Ingeniaritza eta Lizentziatura. <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea</u></p> <p>Beste ingeniaritza batzuetako tituludunak, beti ere esperientzia profesionalagatik edo bere formakuntzagatik hurrengo konpetentzia hauek eskuratu dituela ziurtatzen badu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Badaki zerbitzuei begira dagoen arkitekturan aplikazioak diseinatzen eta inplementatzen. 2. Finkatutako baldintzei erantzuteko software aplikazioak diseinatu, garatu eta mantentzea, programazio paradigma eta lengoaia egokienak aukeratuz. 3. Badaki datu base bat diseinatzen eta inplementatzen, eta datu baseari erabilera eraginkorra emango dioten aplikazioak prestatzen. 4. Badaki sare azpiegitura batean zerbitzari fisiko zein birtualak instalatu, administratu eta kudeatzen. 5. Badaki GNU/Linux sistema eragilea, bai eta sistema eragile horretako zerbitzuak ere, instalatu, administratu eta kudeatzen. 6. Badaki ordenagailu sare bat fisikoki zein birtualki instalatu, administratu eta kudeatzen. 7. Estatistika arrazionamenduaren oinarritzko zimenduak ezagutzea, ikasketen diseinuan, informazio bilketan, datuen analisisian eta ondorioak ateratzean. 8. 'Zibersegurtasuna', 'teknologiak' eta arlo horretan baliaitutako 'tresnak' kontzeptuen oinarriaren ulermena, eta dauden eskakizunetan oinarrituta segurtasun estrategiak eta kontraneurriak aukeratzeko eta ebaluatzeko gaitasuna. <p>Konpetentzia horiek eskuratu ezean, irakasgai hauek egin beharko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Web Ingeniaritza (4,5 ECTS), 1 eta 2.konpetentziak eskuratu ez badute. b) Azpiegiturak eta Sistemak (4,5 ECTS), 4., 5. eta 6. Konpetentziak eskuratu ez badute. c) Metodo Estatistikoak (4,5 ECTS), 7. Konpetentzia eskuratu ez badute. d) Segurtasuna (4,5 ECTS), 8. Konpetentzia eskuratu ez badute. e) Datu Baseak (4,5 ECTS), 3. Konpetentzia eskuratu ez badute. 	<p><u>Irizpideak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1.-Ikaslearen curriculum akademikoa (aurretiatzko formazio egiaztatua). 2.-Ikaslearen espediente akademikoa. 3.-Ikasleei ingeleseko B2 maila edo baliokidea eskatuko zaie masterrean onartuak izan ahal izateko (Europako Hizkuntzetarako Erreferentziatzko Esparru Komuna: Ikaskuntza, Irakaskuntza, Ebaluazioa).

.... Unibertsitate Masterra:	Sarbidea ematen duten titulazioak	Ikasketak egiteko onarpena
Robotika eta Kontrol Sistemak	<p><u>Sarbide zuzena</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Industria Elektronikako Ingeniaritza ■ Energiaren Ingeniaritza ■ Ingeniaritza Mekatronikoa <p><u>Formazio osagarriekin sarbidea</u></p> <p>Hurrengo goi mailako ikasketetako tituladunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Industri Prozesuetako Ekoteknologiakako Ingeniaritza ■ Ingeniaritza Biomedikoa ■ Informatikako Ingeniaritza ■ Telekomunikazio Sistemetakako Ingeniaritza <p>Beti ere kompetentzia hauek bereganatu dituztela egiaztatzen badute:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Konplexutasun txikiko zirkuitu elektrikoak interpretatu eta analizatzea, energia eraldatzeko aplikazioetarako, kontrolerako eta egokitzapenerako. 2. Zirkuitu elektriko eta elektroniko analogikoak diseinatzea aplikazio errazetarako eta digitaletarako. 3. Konplexutasun ertaineko sistema elektronikoak interpretatu eta analizatzea, kontrol eta egokitzapen aplikazioetarako. 4. Zirkuitu elektroniko digitalak diseinatzea, aplikazio errazetarako. 5. Konplexutasun ertain/handiko sistema elektroniko digitalak programatzea, industri aplikazioetarako. 6. Sistema mekaniko sinpleak interpretatu eta analizatzea. 7. Konplexutasun ertain/handiko automatik programatzea, industri aplikazioetarako. <p>Kompetentzia horiek eskuratu ezean, irakasgai hauek egin beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> f) Teknologia Elektronikoa (3 ECTS), 1. kompetentzia eskuratu ez badute. g) Oinarrizko Industria Automatizazioa (3 ECTS), 7. Kompetentzia eskuratu ez badute. h) Makina eta Mekanismoen Teoria (3 ECTS), 6. Kompetentzia eskuratu ez badute. i) Mikroprozesagailuak (3 ECTS), 3., 4. Eta 5. Kompetentziak eskuratu ez badute. 	<p><u>Irizpideak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1.-Ikaslearen curriculum akademikoa (aurretiazko formazio egiaztatua). 2.-Ikaslearen espediente akademikoa. 3.-Ikasleei ingeleseko B2 maila edo baliokidea eskatuko zaie masterrean onartuak izan ahal izateko (Europako Hizkuntzetarako Erreferentziazko Esparru Komuna: Ikaskuntza, Irakaskuntza, Ebaluazioa).

EPS-MUko Master Propiotik sarrera

Automatizazio Industrialean Masterra:

Robotika eta Kontrol Sistemetako Unibertsitate Masterra		Automatizazio Industrialean Masterra:	
Ikasgaia	ECTS	Ikasgaia	ECTS
Eragintza Elektromekanikoak	3	Sistema Mekatronikoetan Eragintza	3
Eragintza Hidraulikoak	3	Eragintza Hidrauliko eta Neumatikoak	3
Automaten Programazio Aurreratua	6	Elementos de Automatización industrial	12
Ardatz Sinkronizatuen kontrola	6		
Makina/Pertsona interfazeak eta ikuskapena, Datuak Kontrolatu eta Eskuratzea	3	Monitorizazioa eta Gainbegiratzea	3
Makinen Segurtasuna	3	Makinen Segurtasuna	3
Industri komunikazioak	3	Industri Komunikazioak	3
Sentsoreak eta Atzipena	3	Sentsoreak	3
Alternantziako praktikak I	3	Praktikak Enpresan	3
Alternantziako praktikak I	3	Master Bukaerako Lana	19
Praktikak	15		
Total créditos reconocidos	51	Total créditos reconocibles	52

Aitorpen proposamen hau, bi masterren edukien antzekotasunean %90a baino handiagoan dela oinarritzen da

V. KREDITUEN AITORPENA

Ikasgaiak baliozkotu edo aitortuko dira baldin eta edukia eta ikastorduak dagokion master ofizialeko gaien parekoak badira, betiere Espainiako edo atzerriko unibertsitateen Graduondareneremuan egindako ikasketak badira, eta interesdunak Graduondoko unibertsitate ikasketa ofizialak arautzen dituen 1393/2007 Errege Dekretuaren, urriaren 29koaren, 16. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Ikasleak Graduaren eremuan egindako prestakuntzan masterrean exijitzen den konpetenziaren bat lortu duela argudiatzen eta egiaztatzen badu, ikasgaiaren programan aurreikusitako jardura bat edo batzuk egitetik salbuetsi ahal izango da. Edonola ere, ikasgaia gainditzeko, ezinbestez kontrol puntu guztiak egin eta gainditu beharko ditu (amaierako notan eragina duten azterketak edo lanak).

Ondoren, kredituak aitortzeko eta transferitzeko irizpideak jasotzen dira; ondorioz, gerta daiteke ikasleek dagokien Masterra osatzeko egin beharreko kredituen kopurua murriztea.

KREDITUEN AITORPENA

Lehena.- Kredituen aitorpena

Lehena.1.) Kreditu aitorpena esaten dugunean, kredituak onartzeaz ari gara, ikasleak kreditu horiek **irakaskuntza ofizialetan** lortu dituenean, Mondragon Unibertsitatean edo beste Unibertsitate batean, eta interesdunak ikasten ari diren Unibertsitate Masterreko irakaskuntzetan zenbatzen direnean, titulu ofiziala lortze aldera.

Goi Eskola Politekniko honek beste Unibertsitate batzuetan egindako ikasketengatik lortutako kredituak ere aitortu ahal izango ditu, baita egindako ikasketetako gainerako gaiei lotutako konpetentzia eta ezagutzen egokitzapenaren arabera eta ikasketa planean aurreikusitakoaren arabera ere, edota zeharkakoak badira, betiere ECTS kredituen eskola karga antzekoa baldin bada, MASTER BUKAERAKO LANARI dagozkion kredituak izan ezik.

Aurreko 1) atalean jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lehena.2) Halaber, **beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate ikasketetan** eskuratutako beste kreditu batzuk ere aitortu ahal izango dira, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen direnen arabera. Kasu horretan, kreditu horien errekonozimenduan ez da kalifikazioa sartuko eta, ondorioz, espedientea barematzeko ondorioetarako ez dute konputatutako.

Lehena.3) **Egiaztatutako lan eta lanbide esperientzia** ere kreditu moduan aitortu ahal izango da, eta konputatu egingo dira interesdunak egiten ari diren Unibertsitate Masterreko titulua lortzeko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Ikasleak laneko esperientzia agiri bidez egiaztatu beharko du, agiri hauek aurkeztuz:

V. Kredituen aitortpena

- ✚ Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
 - ✚ Zuzendariaren edo goragoko arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide eta/edo lan esperientziaren fede ematen duena, eta horretan gutxienez agertuko dira: lan esperientziaren iraupena, eskatzaileak jardun duen lan eremua eta laneko eginkizunaren ezaugarriak
 - ✚ Eskatzaileak berak egindako deklarazioa, alderdi hauek azalduko dituena: garatutako jarduera profesionala, jarduera horren bitartez lortutako gaitasun profesionalak, lortutako ezagutzak, eta aitortza zein ikasgaitarako eskatu nahi duen.
- b) Aitortzarako gutxieneko unitatea ikasgaia eta berari atxikitako kompetentziak izango dira, eta ez da aitortuko ikasgai bat osatzen ez duten ECTS unitaterik. Eta MASTER BUKAERAKO lanen kredituak ere ez dira aitortuko.
- c) Kredituak lortzeko esperientzia profesionalaren denbora ikasgai bakoitzari emandako kreditu kopuruaren arabera zehaztu da (enpresako praktketan izan ezik), eta garatutako jarduera profesionalaren dedikazioaren arabera, hau da, osoa edo partziala izan den hartuko da kontuan, ondoren jasotzen denari jarraituz:

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Aitortzeko gutxieneko unitatea: 3 ECTSko ikasgaia (eta elkarturiko kompetentziak)	12 hilabete	24 hilabete
0,5 ECTS gehigarri bakoitzeko	2 hilabete	4 hilabete
Aitortzeko gehienezko unitatea: 6 ECTSko ikasgaia (eta elkarturiko kompetentziak)	24 hilabete	48 hilabete

- d) Enpresako praktikei dagozkien kredituak aitortu ahal izango dira, betiere Masterreko kompetentziak lortu direla egiaztatzen bada, baita kompetentzia horiek ikasgai zehatzetara esleitu ezin izan bazaie ere, edo esperientzia profesionala kasu bakoitzean dagokion ikasgaiaren ECTS guztiak aitortzeko nahikotzat jo ez bada ere.

Errekonozimendu horretarako esperientzia profesionala eskatuko da, ondoren zehazten denaren arabera:

AITORTZEKO UNITATEAK	120 ECTSko masterra	90 ECTSeko masterra	60 ECTSeko masterra
	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)
Gutxieneko unitatea: 3 ECTS	12 hilabete	12 hilabete	12 hilabete
0,5 ECTS gehigarri bakoitzeko	2 hilabete	2 hilabete	2 hilabete
Gehienezko unitatea: 18 ECTS	72 hilabete		
Gehienezko unitatea: 13,5 ECTS		54 hilabete	
Gehienezko unitatea: 9 ECTS			36 hilabete

- e) Eskaeraren idatzia interesdunarekin egingo den elkarriketa batez osatuko da; bertan, ikasgaiaren edo ikasgaien irakasleak/irakasleek ikasleak errekonozitu nahi den Masterreko ezagutzak eta konpetentziak eskuratu dituela egiaztatuko du/dute.
- f) Lan eta lanbide esperientziatik lortutako kredituek ez dute kalifikaziorik izango eta, ondorioz, espedientea barematzeko ondorioetarako ez dute konputatutako.

Lan edo lanbide esperientziaren ondorioz eta unibertsitate irakaskuntza ez ofizialen ondorioz aitortutako kredituen kopurua, guztira, ezingo da 18 ECTS baino handiagoa izan da (120 ECTSko masterretan) ezta ere 13,5 ECTS baino handiagoa (90 ECTS masterretan).

Lan esperientziatik kredituak aitortzeko eskatzeko, ikusi 1. Eranskina, araudi honen amaieran.

Bigarrena.- Kredituen transferentzia

Kredituen transferentzia esaten dugunean, ikasle bakoitzak egindako ikasketen egiaztagiria akademiko ofizialak txertatzeaz ari gara, hau da, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean aurretik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak txertatzeaz -titulu ofizial bat lortzeko adina izan ez badira ere-.

Hirugarrena.- Espediente akademikoa

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak jasoko dira, titulua lortzeko, transferituak, aitortuak edo gaindituak izan, kasu bakoitzean dagokiona adierazita. Kreditu aitortuak direnean, etorkizko irakaskuntzei buruzko honako informazio hau agertu beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak, eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa. Azken informazio hori ez da agertuko lan edo lanbide profesionalaren bidez aitortutako kredituen kasuan.

Laugarrena.- Tituluaren gehigarri europarra

Ikasleei emandako Tituluari egindako Gehigarri Europarrak, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak islatuko ditu, dagokion titulua lortzeko, transferituak, aitortuak edo gaindituak izan, Espediente Akademikoan egindako zehaztapen berberekin.

VI. MATRIKULA

Matrikulatzeko baldintzak batekoak edo bestekoak izango dira ikasleak ikasketak dedikazio osoan edo dedikazio partzialean egiten ari badira.

Industria Ingeniaritzako Masterrean ikasketen hasiera

Master honetara sarbidea duten ikasleek, irailean hasten dituzte normalean berain ikasketak ikasturte berriaren hasierarekin batera. Hala ere, Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterrean otsailean matrikulatzeko aukera ahalbidetu da 2.sehilekoaren hasierarekin batera honako plangintzaren arabera:

IKASTURTEA	1ºSehilekoa	2ºSehilekoa
X Ikasturtea		30 ECTS (1º kurtsoa)
X+1 Ikasturtea	30 ECTS (1º kurtsoa)	12 ECTS praktikak (2º kurtsoa)
X +2 Ikasturtea	18 ECTS (2º kurtsoa)	30 ECTS (MBL) ⁸

Dedikazio osoa duten ikasleak

Dedikazio osoa duten ikasleak dira ikasketak eta lan jarduera (bekadun moduan ez) aldi berean egiten ari direla egiaztatzen ez duten ikasleak, eta ez dutenak egiaztatzen ikasketetan errendimendu arrunta lortzea eta, ondorioz, titulura bete-betean dedikatzea galarazten dien zerbait dutela (ezintasuna, gaixotasun luzea, goi mailako edo errendimendu handiko kirolaria izatea...).

Dedikazio partziala duten ikasleak

Ikasketak dedikazio osoarekin baino dedikazio txikiago batekin (eskuarki dezente txikiagoarekin) egiteko baimena duten ikasleak dira, eta dagokien egiaztagiria aurkeztu behar dute (langile aktiboa izatea, ezintasun bat edukitzea edo gaixotasun luze bat edukitzea, ikasketetan errendimendu arrunta izatea galarazten diena).

Oro har, sei hilekoetan eta ikasturteetan zehar ikasleek espero den erritmoan aurrera egiteko ikasketa plan bat aurreikusi da. Dena dela ere, azaldutako dedikazio moduak kontuan hartuta, matrikularako baldintza hauek ezarri dira:

A. 'Urruneko' modalitatean edo dedikazio partziales matrikulatutako ikasleak

⁸ Kasu honetan praktiketako 12 ECTSak ez dira MBLaren 30 ECTSkin batera egiten. Kasu honetan MBLa martxoaren 31ean aiatuko da eta apirilaren 1etik aurrera aurkeztuko da.

1. Enpresa berrikuntza eta proiektuen zuzendaritza Masterreko prestakuntza "urruneko" modalitatean egiten duten ikasleak dira, eta modalitate presentzialeko ikasketak osatzeko eskatu ohi den baino epe luzeagoan egin dezakete. Kasu horretan, edonola ere, ikasleak gutxienez urteko 18 ECTStan eta gehienez urteko 33 ECTStan matrikulatu beharko dira.
2. Dedikazio partzialeko ikasleek 1. eta 2. mailako ikasgaiak uztartu ahal izango dituzte beren matrikulan, baldin eta 2. mailako ikasgaiak egin aurretik lortu beharreko ezagutzen eta konpetentzien gaineko baldintzarik ez badute.
3. Industria Ingeniaritzako Masterra egiten duten ikasleek matrikula partziala egiteko aukera izango dute (web orrian agertzen den moduan). Kasu honetan aukera bakoitzeko ikasgaien eskaintza itxia da.

B. Dedikazio osoz matrikulatutako ikasleak

1. Dedikazio osoa daukaten ikasleak 2. mailako ikasgaietan matrikulatu ahalko dira 1. mailakoak gainditu gabe edukita, baldin eta alde z aurretik 1. mailako ikasgaiok ikasten ibili izan badira. Halako kasuetarako, muga hauek ezarri dira:

Unibertsitate masterra	Muga
Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoa Teknologia Biomedikoak Energia eta Potentziako Elektronika Datuen Analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei-Konputazioa Robotika eta Kontrol Sistemak	Gehienez ere, 1. mailako ikasgai 1 izan beharko du gainditu gabe; edo 1 baino gehiago, ikasgaion ECTSen batura $\leq 7,5$ baldin bada.
Industria Ingeniaritza	Gehienez ere, 1. mailako 2 ikasgai izan beharko ditu gainditu gabe, edo 2 baino gehiago, ikasgaion ECTSen batura ≤ 10 baldin bada. 2. Mailako ikasgai guztietan matrikulatu ezin bada, ezin izango da MBL proiektuan matrikulatu gainerako ikasgaietan matrikulatu gabe.

Oharra: Ondorio horietarako, MBL proiektua MBLaren beraren ECTSen batura izango da, gehi elkartutako praktikak.

MATRIKULA TASEN ORDAINKETA

Ikasleak matrikula tasak matrikulatu deneko kreditu kopuruaren arabera ordainduko ditu. Tasa horiek ordainketa bakarrean edo ikasturtean zehar egindako 9 edo 3 ordainketaren bidez ordainduko ditu.

ECTSaren prezioa Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Kontseilu Errektoreak onartzen du, ikasturte bakoitzaren hasieran, eta prezio hori webgunean argitaratzen da.

Oro har, ikasgai berean bigarren aldiz matrikulatzeak kredituaren prezioaren %10eko igoera eragingo du; eta %20ko igoera, hirugarren aldiz edo gehiago matrikulatzen bada, MASTER BUKAERAKo Lanean eta elkartutako praktiketara izan ezik, horiek hurrengo paragrafoetan jasotzen den berriazko araudiarekin arautuko baitira.

MASTER BUKAERAKO LANAREN ETA ELKARTUTAKO PRAKTIKEN MATRIKULA

MBLeke lehen matrikula (mat. aldiak, 1) eta elkartutako praktiketako elkarrekin egiten badira 2. mailako gainerako ikasgaiekin eta, hala badagokio, 1. mailan gainditu gabekoekin batera, eta ikasleari MBL proiektua hasteko baimenik ematen ez bazaio ikasturte horretan eskatzen diren baldintza akademikoak ez dituelako betetzen, orduan ez zaio MBLaren eta elkartutako praktiken zenbatekoa itzuliko; hala ere, beste ikasturte batean egiten hasten bada, ez da bigarren aldiz ordaintzera behartuta egongo.

Kontzeptu biok ordaindu arren, MBLa hasteko aukerarik izan ez eta ikasketak uzten baditu, MBLari eta elkartutako praktiken matrikulari dagokion zenbatekoa ez zaio itzuliko.

MBL-AREN ETA ELKARTUTAKO PRAKTIKEN MATRIKULA HAINBAT ALDIZ (MBL-AREN AURKEZPENA EZ BADA EGITEN DEN IKASTURTEAN BERTAN BAIMENTZEN)

MBLa hasi eta gero, gertatu daiteke aurkezpena ez baimentzea, arrazoi hauetako edozeinengatik:

MBL mota	Egoera	Hurrengo ikasturtean matrikulatu behar du...	Ordaindu beharreko zenbatekoa	Hurrengo ikasturtean aurkezteko epea
		Dagokiona: 30 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL		
MBL 60 (30 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL)	Ez ditu praktikak amaitu eta ez du MBLa amaitu.	edo 20 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL	Kasu bakoitzari dagozkion ECTS-en zenbatekoa + %10eko gehikuntza	Epea:otsaileko edo uztaileko deialdia (dagokiona)
MBL 50 (20 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL)		edo 12 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL		
MBL 42 (12 ECTS praktikak + 30 ECTS MBL)		edo 15 ECTS praktikak + 15 ECTS MBL		
MBL 30 (15 ECTS praktikak + 15 ECTS MBL)		edo 7 ECTS praktikak + 8 ECTS MBL		
		ó		
		Dagokiona: 30 ECTS MBL		
MBL 15 (7 ECTS praktikak + 8 ECTS MBL)	Praktikak amaitu ditu baina ez du MBLa amaitu.	15 ECTS MBL	MBLaren zenbatekoaren %10 (30 ECTS, 15 ECTS edo 8 ECTS)	Epea:otsaileko edo uztaileko deialdia (abenduara aurreratzeko posibilitatea)
	Praktikak eta MBLa amaitu ditu, baina ez ditu aurkezteko baldintzak betetzen.	edo 8 ECTS MBL		
		Proiektua epe arruntan aurkeztu behar du eta hurrengo urtean ez da matrikulatu behar		Epea:otsaileko edo uztaileko deialdia (dagokiona)

MATRIKULA DEUSEZTATZEA

Kontzeptua

MGE Pen matrikula formalizatzen duen ikasleak matrikula deuseztatzea eskatu ahal izango du aurrez dagokion eskaera aurkeztuta, instantzia bidez eta GE Peko Idazkaritzara zuzenduta, betiere, ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehenago aurkeztzen bada.

Matrikularen deuseztatzea ofizioz egingo da formalizatzeko exijitutako eskakizunen bat betetzen ez denean, edo emandako datuak nahiz dokumentazioa faltsututa daudenean.

Ondorioak

Ikasle batek, berak hala nahita, matrikula deuseztatzea eskatzen duenean, edo ofizioz deuseztatzen zaionean, ikaslea ondorio guztiekin utziko dio Eskola honetan matrikulatuta egoteari; beraz, ez zaio Zentro honekiko loturarik justifikatzen duen inolako ziurtagirik emango.

Ikasleari ez zaio deuseztatzeke unera arte ordaindutako matrikularen zenbatekoa inola ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden zenbatekoen kobrantza eten egingo da.

VII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA

EBALUATZEKO MEKANISMOAK

Formazio jardueren eta ebaluazio sistemaren arteko koherentzia

Ebaluazioa bat etorriko da erabilitako metodologiekin, eta formazio ekintzen eta ebaluatzeke tresnen artean kongruentzia eta proportzionaltasuna egon beharko da. Horrenbestez, praktikak eskola orduen % jakin bat badira, amaierako notan % horixe bera izango da. Halaber, seihilekoko Proiektua ikasleen ahaleginaren % jakin bat bada, amaierako notan ere % baliokidea izango da (eta beti gutxieneke % bat izango dira).

Ikaskuntzan lortu diren kompetentzien eta emaitzen ebaluazio presentziala

Ikasgai guztietan ebaluazio presentziala egiteko mekanismo bat aurreikusiko da, ahozkoa edo idatzizkoa, teorikoa edo praktikoa. Ebaluaziorako hautatzen den formatua edozein izanik ere, bertan sartu beharko dira ebaluazioa bera eta errekupeazioa, kompetentziak barneratu gabe bazeuden.

Kompetentziak ebaluatzeke edota gaintu gabeko kompetentziak errekupeatzeko antolatutako kontrol puntuak ez dira errepikatuko. Hau da, ikaslea gaixotuz gero edo edozein arrazoiengatik ezin badu kontrol puntua egin, hau ez zaio errepikatuko. Ebaluazio prozesuan errekupeazio ekintza honi dagokion notarik ez da egongo eta seihileko lantaldeak aztertu eta erabaki beharko du dagokiona seihileko ebaluazioan edo azken ebaluazioan.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aintzat hartuta ere, MGEPEko Koordinazio Orokorreko taldeak edozein kontrol puntu errepikatzea edo atzeratzea erabaki dezake bere eskumenetik kanpoko arrazoiengatik, ikasle portzentaje handi bati ikastetxera etortzea galarazten dion ezinbesteko egoeraren bat suertatzen denean.

Kontrol-punturen batetan edozein motatako iruzurra eginez gero, edo, lanen baten edo memoria batean plagioa egiten bada, delako ariketa, lana edo kontrol puntua, -edo kasuan kasukoa-, «Suspentso» bezala kalifikatuko da, iruzurrean eroritakoari egotzi ahal izan zaion erantzukizunaz gain.

Ikaskuntzan lortu diren kompetentzien eta emaitzen online ebaluazioa

Online modalitatean eman diren tituluen kasuan, ikaslearen nortasuna bermatuko da ebaluazio probetan eta era berean, bermatuko da aurkezten dituen entregagaiak berak egindakoak direla (talde lanean egin behar dela adierazi edo eskatzen denean izan ezik).

Horretarako erabiliko diren mekanismoak ondorengoak dira:

1.- Harrera planean ikasle bakoitzari eskatuko zaio foroan bere burua aurkeztea eta bere argazkia txertatzea. Aurkezpen eta argazki horiek nortasun agiriarekin (nortasun agiria, pasaporte...), CVarekin eta dokumentazio akademikoarekin batera bidaliko ditu ikasleak inskripzioa eta matricula egiteko momentuan. Ikasleak ikasketak utzi beharko ditu identitatea faltsutzen, ordezten edo antzekorik egiten badu.

2.- Ebaluazio jarraitua denez, ikasle eta irakaslearen arteko harreman iraunkor bat bermatuko da, horrela irakasleak momenturo baloratu ahal izango du ikaslearen aurrerapen maila. Hala ere, irakasleari iruditzen bazaio lan konkretu bat ez duela ikasleak egin, foroan idatzizko edo ahozko defentsa bat egitea eskatu ahal izango dio.

3.- Espainian edo Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruko kide diren herrialde batean bizi diren ikasleek MBL Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko egoitza (edozein Campusetan) batean aurkeztu beharko dute. Kasu hauetatik aparte, aukera emango da MBL gela birtualean aurkezteko, eta ekitaldi akademikoa grabatu egingo da eta ebidentzia gisa gordeko da.

4.- Gela birtualean garatutako saio guztiak, horien artean ebaluazio saioak, grabatu egingo dira eta 'backup' sistema bat egongo da horien artxiboa bermatzeko.

5.- On-line ikasketak egiten dituzten ikasleek Mondragon Unibertsitatearen kode etikoarekin bat datorren konpromisoa sinatuko dute termino hauetan:

1. *Kontu batekin bakarrik erregistratuko naiz.*
2. *Lanetako, galderetako eta azterketetako nire erantzunak nireak izango dira (modu espezifikoan, laguntza onartzen den kasuetan izan ezik).*
3. *Ez dizkiot inori emango lanetako, galdetegiak edo azterketetako erantzunak. Honen barruan sartzen dira nik idatzitako erantzunak eta erantzun ofizialak, ikastaroko pertsonal akademikoak emandakoak. .*
4. *Ez ditut nire emaitzak hobetzeko edo besteenak hobetu edo kaltetzeko jokabide zantzarrik jarraituko.*

Ebaluazio jardueri buruzko jarraibeak

- Kontrol puntuak online eran ere egin ahal izango dira kasu jakin batzuetan: COVID frogan positibo emateagatik, diagnostikoz isolatuta edo berrogeialdian daudelako MGEPer bertaratu ezin daitezkeen ikasleei kontrol puntuak online eran egitea ahalbidetuko zaie gainontzeko ikasleekin batera. Horretarako kontrol puntua izango den egunaren bezperan, arratsaldeko 17:00ak baino lehen, kasuan kasuko irakasleari jakinarazi beharko diote azterketa (edo kasuan kasuko proba) egingo duten ala ez. Kontrol puntua egin ezina adierazi duen ikaslearen ardura izango da urtarilaren 31 aurretik (lehen seihilekoan) eta ekainaren 18a aurretik (bigarren seihilekoan) dagokion egiaztagiria aurkeztea irakasleari edo seihileko koordinatzaileari.

Kontrol puntuaren emaitza ez da aintzat hartuko, ez eta bistaratu ere, gorago aipatutako egiaztagiria aurkeztu arte.

Gorago aipatutako egoeraren baten egonik jakinerazpena bidaltzen ez duen kasuetan, ikaslea gaixorik dagoela ulertuko da (alegia, azterketa egin ezinik). Beraz, zuzenean errekeraketako azterketara aurkeztu beharko da.

- Errekuperaketa denak online eran edo presentzialki egin ahalko dira, goizeko 8:00ak eta arratsaldeko 18:30ak artean.
 - Ikasleren bat bakartuta edo berrogeialdian badago, kontrol puntua on line eran egin ahalko du, gorago aipatutako prozesua jarraituz (aldeaz aurretik jakinarazi eta, egiaztatzea aurkeztu).
 - Ebaluazio jardueretan ikasleak zintotasunez jotako du, kontrol puntuetan (azterketak zein lanak edo txostenak) iruzurrik egin gabe.
 - Kontrol puntuetan irakasleak baimendutako baliabideak solik erabili ahalko ditu ikasleak. Baimendu gabeko materiala iruzurrezko materiala izango da. Ondorioz, kontrol puntu baten berau darabilen ikaslea azterketatik kanporatu ahal izango du irakasleak, kopiaketari dagozkion ondorio berberekin; eta irakasleak iruzurrezko materiala aldi baterako atxiki ahalko du iruzurraren ebidentzia gisa.
 - Beharrezkotzat jotzen dituen baliabide teknologikoak jarri ahalko ditu MGEPEk kontrol puntuetan iruzurrik ez dagoela bermatzeko. Zentzu honetan, lan bat entregatzerakoan ikasleak inplizituki aditzera ematen du badakiela MGEPE-en eskumena dela baliabide horiek erabiltzea iruzurrik ez dela egon bermatzeko
- Kontrol-punturen batean edozein motatako iruzurra eginez gero, edo, lanen baten edo memoria batean plagioa egiten bada, delako ariketa, lana edo kontrol puntua, -edo kasuan kasukoa-, «Suspenso» bezala kalifikatuko da, iruzurrean eroritakoari egotzi ahal izan zaion erantzukizunaz gain. Horretaz gain, Gradu ikasleen kasuan txartel horia (edo gorria) atera ahalko zaio, honek dakartzan ondorioekin.
- Ebaluazio jardueran bat zuzentzerakoan irakasleak ikasleek iruzurren bat egin duenaren susmo sendoak baditu, ebaluazioa jarduera errepikatzeko eskatu edota «Suspenso» bezala kalifikatu bere ondorio guztiekin, bien artean erabaki ahalko du.
 - Aparteko zigorrak jasan ahalko dituzte bere gain, birritan iruzur egiten dutenek edo egindako iruzurrean egoera larriak antzeman badira.

IKASKUNTZEN EBALUAZIOA

Ikasleek lortutako ezagutza maila zenbakizko kalifikazioarekin adieraziko dira eta beren espediente akademikoan jasoko dira.

Kalifikazio tarteak

Ikasketa planeko ikasgaietan lortutako emaitzak 0 eta 10 bitarteko zenbakizko eskalaren arabera kalifikatuko dira, zenbaki dezimal batekin. Nota honi kalifikazio kualitatiboa gehitu ahalko zaio.

Gutxiegia: 0 - 4,9

Nahiko: 5,0 - 6,9

Oso ongi: 7,0 - 8,9

Bikain: 9,0 - 10

Ikasketako planeko ikasgaietan Ohorezko Matrikula

Ikasgai baten 9.0 edo 9tik gorako nota lortu ezker, ohorezko matrikula eman ahal izango zaie, dagokion ikasturtean ikasgai berean matrikulatutako ikasle guztien ehuneko bostekoari gehienez.

Ikasgai jakin batean 20 ikasle baino gutxiago baldin badago matrikulatuta, ohorezko matrikula bakarra eman ahal izango da.

Aipamen honetatik kanpo geratuko dira, mugikortasun programetan egindako ikasgaiak, aitortutako ikasgaiak (edozein delarik bere jatorria) eta ikasketa plana aldatzeagatik egokitutakoak.

Espediente akademikoaren bataz besteko nota

Espediente akademikoaren bataz besteko nota, ondoko formularen bidez kalkulatu da: ikasleak lortutako kreditu guztien batura (horietako bakoitza dagokion kalifikazioaren balioagatik biderkatuz) eta lortutako kreditu guztien batura zatikatuz.

Masterreko espedientearen bataz bestekoan 9.0 edo 9tik gorako nota lortu ezker, ohorezko matrikula eman ahal izango da. Ikasturte akademiko berdinean titulu bera eskuratutako ikasle guztien ehuneko bostekoari eman ahal izango zaio gehienez. 20 ikasle baino gutxiago badira tituludunak, ohorezko matrikula bakarra eman ahal izango da.

Zenbakizko kalifikaziorik gabeko Kredituak

Ikasketa Planetik kanpo egindako formazio osagarriengatik aitortutako kredituek ez dute zenbakizko baliorik izango. Horren ondorioz ez dira kontutan hartzen espedientearen akademikoaren bataz besteko nota kalkulatzeko.

EVALUACIÓN DE LOS APRENDIZAJES

Ebaluazioa

Ebaluazioaren helburua ikasleek ikasgaietako konpetentziak zein mailatan barneratu dituzten zehaztea da. Xede horrekin, ikasturtean zehar bi ebaluazio ezarri dira: ebaluazio partzial bat otsailean, eta amaierako ebaluazio globala uztailean, MBLera otsailean sartzen direnean edo MBLa otsailean aurkezteko baimena dagoenean izan ezik, eta horiek aurrerago azalduko dira atal honetan bertan. Lortu gabeko konpetentziak errekupezteko mekanismoak ikasturtean sartuta daude.

Ebaluazio partzialaren helburua da ikasleei ikasturtearen lehen sei hilekoan konpetentzien barneratzen maila zein den **adieraztea**. Ebaluazio partzial horietan konpetentzietan eta ikasgaietan lortutako kalifikazioak behin-behinekoak izango dira, ondorio guztietarako, ikasturtearen amaierako ebaluazioa egin arte.

Amaierako ebaluazioaren helburua ikasleek ikasturtean zehar izan duten errendimenduaren balorazio globala egitea da, eta **zehaztea bakoitzak zein konpetentzia eta ikasgai gainditu dituen eta zein ez**.

Ebaluazioen emaitzak Idazkaritza Birtualaren bidez jakinaraziko zaizkie ikasleei.

Deialdia uztailetik otsailera aurreratzea

Deialdia aurreratzeko egoera hauek hartzen dira kontuan:

A. 1. mailako gainditu gabeko ikasgaien deialdia aurreratzeko aukera

1. mailako ikasgaiak gainditu gabe dituzten eta 2. mailan matrikulatuta dauden ikasleek 1. mailatik errepikatzen ari den eta bigarren seihilekokoak diren ikasgaien deialdia lehen seihilekora aurreratu ahal izango dute (inolaz ere ez lehendabiziko aldiz matrikulatu bada), betiere lehen seihilekoan azterketa egiteko ikasgaien ECTS kopurua gehienez ere 42 ECTS bada.

B. MBLa hasteko deialdia aurreratzea

Ikasleak 42 ECTS edo gutxiago egiteko matrikulatuta badaude eta horiek gaindituta MBLean sartu badaitezke, errepikatzen ari diren ikasgaien bigarren seihilekoko deialdia otsailera aurreratu ahal izango dute (inoiz ez lehen aldiz matrikulatutakoak badira), MBLean azkarrago sartzeko.

C. MBLa aurkezteko deialdia aurreratzea

Halaber, MBLa egiten ari diren ikasleek errepikatzen ari diren ikasgaiaren bigarren seihilekoko deialdia otsailera aurreratu ahal izango dute (inoiz ez lehen aldiz matrikulatua bada).

Deialdia aurreratzeko baimena lortzeko aurretiaz eskabidea aurkeztu behar Idazkaritza Akademikoan, betiere aurreko paragrafoetan zehaztu diren A, B eta C kasuetan adierazitako baldintzak betetzen badira. Aurrerapen horrek eskubidea sortuko du ikasgaiaren ebaluazioa eta erreuperazioa otsailean egiteko. Eskatzen dutenek automatikoki uztailleko deialdirako eskubidea galduko dute, baita azkenean aurrerapena erabiltzen ez badute ere.

Prozedura

Ikasgai baten deialdia aurreratu nahi duten ikasleek honako helbide elektronikoa honetara jbenito@mondragon.edu idatzi bat bidali beharko dute urte honetako abenduaren 5a baino lehen (edo aurreko lan eguna, abenduaren 5a jaia baldin bada). Eskaera horretan argi eta garbi zehaztu beharko da: zein den ikaslea, ikasten ari den titulua eta zein ikasgaietan aurreratu nahi duen deialdia.

MBLa aurkezteko baldintzak

MBLa aurkeztu eta defendatu ahal izateko, tituluaren kompetentzia eta ikasgai gainditugabe guztiak gainditu beharko dira.

30 edo 60 ECTSko MBLa hasteko baldintzak

MBLa hasteko beharrezkoa izango da 1. mailako ikasgai guztiak gaindituta izatea, edo gehienez ere 1. mailako ikasgai bat izatea gainditu gabe.

42 edo 50 ECTSko MBLa hasteko baldintzak

MBLa hasteko beharrezkoa izango da masterreko gainerako ikasgai guztiak gaindituta edukitzea, edo gehienez ere ikasgai bat edukitzea gainditu gabe.

15 ECTSko MBLa hasteko baldintzak

MBLa hastea otsailean baimenduko da. MBLa hasteko beharrezkoa izango da masterreko gainerako ikasgai guztiak gaindituta edukitzea, edo gehienez ere ikasgai bat edukitzea gainditu gabe.

Hala ere, aipatutako hiru kasuetan, gainditu gabeko ikasgaien kopurua batetik gorakoa izan daiteke, baldin eta ikasgaion ECTSen batura $\leq 7,5$ bada.

MATRIKULAren VI. atalean adierazienez, aurretiazko baldintza akademikoak ez betetzeagatik MBLaren hasiera hurrengo deialdira atzeratu behar baldin bada, MBLari eta elkartutako praktikei dagokien matrikula berria ez da ordaindu behar izango, aurreko ikasturtean ordaindu delako.

MBLaren hasiera aurreratzeko deialdi berezia

MBLa hasteko baimenik jaso ez eta gehienez ere gainditu gabeko bi ikasgai dauzkaten ikasleek deialdi gehigarri bat izango dute ikasgaiok gainditzeko: ekainean 1. seihilekoko ikasgaiak gainditzeko eta uztailean, berriz, 2. seihilekokoak gainditzeko.

Gainditu gabeko ikasgairako deialdi berezia, MBLa lantzearekin batera egiten dena

Ikasgai bat gainditu gabe eduki arren MBLa hasteko baimena jaso duten ikasleek deialdi gehigarri bat izango dute ikasgai hori gainditzeko: ekainean 1. seihilekoko ikasgaiak gainditzeko eta uztailean, berriz, 2. seihilekokoak gainditzeko.

Ikasgaiak konpentsazio bidez gainditzea

Prozedura berezi honen bidez, ohiko bideetatik gainditu gabeko ikasgai bati dagokion nahikotasuna adierazten da. Prozedura honi, baldintza hauek betetzen dituzten masterreko ikasleek heldu diezaioke:

- 1.- Titulazioa amaitzeko, ikasgai bakarra edukitzea gainditzeko (MBLa alde batera utzita).
- 2.- Gutxienez 6 aldiz aurkeztu izana ikasgai osoaren proba presentzialetara.
- 3.- Behin gutxienez, 4 edo hortik gorako kalifikazioa lortu izana batez beste, edo gutxienez 3ko bat deialdi bitan.
- 4.- Nolanahi ere, egun desagertzeko bidean dauden planen kasuan, deialdiren batera aurkezteko aukerarik ez dagoenean, beharrezkoa izango da aipatutako ikasgaiaren deialdi batera gutxienez aurkeztu izana, eta 3ko kalifikazioa edo hortik gorakoa lortu izana.

Kompentsazioaren mugak:

1. Espediente akademikoan zigorren bat jasota daukaten ikasleei ezin izango zaie konpentsaziorik onartu.
2. Ez MBLa ez elkartutako praktikak, bietako bat ere ez da konpentsatuko.
3. Kompentsazioa behin bakarrik eman ahal izango da titulazioko.

Prozedura

Prozedura ikaslearen eskariz bideratuko da. Prozeduraren epea 7 egunekoa izango da, uneko ikasturteko uztaileko deialdiko kalifikazioak Interneten argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita. Masterreko irakasle taldeak, ezohiko ebaluazio saioan bilduta, zehaztutako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du, eta konpentsazioa ematea egokia den ala ez erabakiko du. Bigarren kasuan, ezetza argumentatuta egon beharko da.

Prozesua amaitutakoan, aktan “Gai konpentsazio bidez” edo “Eskatutako konpentsazioa ez da onartu” jasoko da, eta hori espediente akademikoan agertuko da. Erabakia interesdunari jakinarazi ondoren, dagokion erreklamazioa egin ahal izango da. “Gai konpentsazio bidez” kalifikazioa nahiko bat izango da (5) ikaslearen espedientean.

MBLa aurkezteko baldintzak

30 edo 15 ECTSko MBLa garatzen ari diren eta aldi berean gainditu gabeko ikasgaiak egiten ari diren ikasleek, MBLa aurkeztu eta defendatu ahal izateko, titulutik falta zaizkien kompetentziak eta ikasgaia gainditutaizanbeharko dituzte.

Amaierako ebaluazioan elkartutako irakasle taldeak egiaztatuko du zein ikaslek betetzen dituzten MBLera aurkezteko baldintzak eta zeinek entregatu ahal izango dute. Ebaluazio hori otsailean egingo da gainditu gabeko ikasgaiaren deialdia aurreratu bada, eta horrekin MBLa aurkezteko baldintzak bete ahal izango ditu; edo uztailean, deialdia ez bada aurreratu.

MBLa aurkezterik izan ez baina entregatu egin duten ikasleek 3 ikasturteko epea izango dute tituluaren gainerako kompetentziak eta ikasgaiak gainditzeko. Hau da, entregatutako MBLa gordetzeko 3 ikasturteko epe bat ezartzen da.

Edonola ere, ikasleak MBLa egiteko edo aurkezteko baldintza akademikoak bete dituela egiaztatuzeko (eginda duenean), ondoren zehazten den txantiloaren bidez egingo da.

VII. Irakaspenen ebaluazioa

EVALUACIÓN GLOBAL DEL MÁSTER UNIVERSITARIO EN											
CURSO:						FECHA:					
GRUPO:											
ALUMNO/A:											
	1ER CURSO					2º CURSO					Notas competencias Máster
	Asignatura 1	Asignatura 2	Asignatura 3	Asignatura 4	Asignatura II	Asignatura I.1	Asignatura I.2	Asignatura I.3	Asignatura I.4	Asignatura I.5	
Competencia título 1	P N	P N	P N	P N				P N			Nota media ponderada*
Competencia título 2	P N		P N		P N					P N	Nota media ponderada*
Competencia título 3								P N			Nota media ponderada*
Competencia título 4	P N		P N			P N					Nota media ponderada*
										PESO TOTAL:	<input type="text"/>
P: Peso en horas											
N: Nota obtenida											
* (por nº horas de la competencia)											

MBLa aurkeztea eta defendatzea

Ebaluazioaren emaitza gisa MBLa aurkeztu daitekeela erabakitzen bada, aurkezpen eta defentsa horretan edonola ere >=5eko puntuazio lortu beharko du Masterra gainditu ahal izateko.

MBLa aurkezteko eta defendatzeko araudia 'MBLaren Gida Akademikoa' eta 'MBLaren Ebaluazio Sistema' izeneko dokumentuetan jasota dago.

IRAUPEN ARAUTEGIA

Titulazioaren iraupen arautegiak funtsezko bi aspektu ditu: ikaslea eskoletara agertzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzea:

- Ikaslea eskoletara agertzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzea. Ikasleren bat eskolara agertu ez eta hori justifikatzen ez badu, eta hori maiz gertatzen bada edo denbora tarte luzeetan; horrek bere prestakuntza erritmoan, eta baita bere ikaskideenarenean ere, eragiten duen interferentzia kontuan hartuz, horregatik bakarrik irakasgaia (edo seihileko hainbat irakasgai) errepikatzeke exijitu dakiogee; eta are gehiago: baita ikasketak uzteko ere.

IRAUN DEZAKEEN URTE KOPURUA (ikasturte akademikoak).

Nahiz eta ikasleak eskoletara agertzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzeko konpromisoa izan, Mondragon Unibertsitateko GEPEk gutxieneko errendimendu akademiko bat eskatuko die bere ikasleei zentzuzko aprobetxamendu bat bermatzeko, eta ondorioz, gehienezko iraupen hau zehaztu da:

- 60 ECTSko karga duen Masterreko ikaslea (Modalitate Presentziala): gehienez 4 urteko iraupena.

- 60 ECTSko karga duen Masterreko ikaslea (Online modalitatea): gehienez 6 urteko iraupena.
- 120 ECTSko karga duen Masterreko ikaslea (Modalitate Presentziala): gehienez 6 urteko iraupena.
- 90 ECTSko karga duen Masterreko ikaslea (Modalitate Presentziala): gehienez 4 urteko iraupena.

Ikaslearen baja eragin dezaketen arrazoiak

- Identitatea faltsutzeagatik, ordezteagatik edo antzekoengatik derrigorrezko baja.
- Ikasketen modalitatearen araberako gehienezko urte kopurua amaitzea.

VIII. IKASLE IZATEARI UZTEA

IKASLE IZATEARI UZTEA, IKASLEAK HALA NAHITA

Ikasleak Zentroko ikasle izateari utzi nahi dionean, Idazkaritza Akademikoari jakinarazi beharko dio.

Ondorioak

Idazkaritza Akademikoak deuseztatu egingo ditu ikasleak ikasturtean erabiltzeko dauzkan deialdiak eta Administrazio Sailari jakinaraziko dio, hurrengo hiletik aurrera ordaintzeko dauden matrikula zenbatekoen kobrantza eteteko.

Ordu arte ordaindutako zenbatekoak ez dira inola ere itzuliko.

IX. ELKARBIZITZARAKO JOKABIDEA ARAUAK

1. ASISTENTZIA

MGEP-eko Masterreko ikasketak presentzialak dira⁹. Beraz, klaseetara etortzea derrigorrezkoa da. Presentzialtasun hau bi modutara gauzatu daiteke, aurrez aurre (Eskolara bertaratuz) edo, -COVID-ak eraginda-, online eran, dagokionean eskoletara konektatuz. Bigarren honi 'presentzialtasun egokitua' deritzogu.

Erizpide nagusi honi jarraituz, eskoletan erabilitako ikaste metodologia ikasleen presentzialtasunean oinarritzen da. Ikaslea klasera etortzen ez bada, ikaste-irakaste prozesuan definituriko zenbait aktibitateen garapenean parte hartzea galaraztea gerta liteke; eta, ondorioz, ebaluazio jarraia egiteko aukera galdu dezake. Era berean, irakasleek esandako plataforma erabiliz, klaseetara birtualki konektatzea derrigorrezkoa da (COVID pandemiaren erruz horrela erabakiko balitz) eta konexio birtual honetara ez bertaratzeak, irakaskuntza eta ikasgaiak presentzialak diren kasuetan bezalako ondoriok izan ditzake.

Bakartuta edo berrogeialdian dauden ikasleek ere klaseak jarraitu ahalko dituzte.

COVID frogan positibo emateagatik, diagnostikoz isolatuta edo berrogeialdian daudelako MGEPera bertaratu ezin daitezkeen ikasleak presentzialtasun egokituz baliatuko dira, ahal duten neurrian, klaseak telematikoki jarraitu ahal izateko.

Aukera berdina izango dute beste arrazoi batzuegatik gaixotzen diren ikasleek.

Horretaz gain, zuzeneko saioetan sor litezkeen arazoek ondorioak ekiditze aldera, gorago aipatutako egoeraren baten dauden ikasleei begira eskolak grabatu ahal izango dira. Horrela, konexio arazoak izan dituzten ikasleek edota gaixo dauden ikasleek, konexio berreskuratzean edota osatzean, grabatutako saioa ikusgai izango dute hilabetez¹⁰ grabaketa egin den datatik aurrera kontatuta.

2. PUNTUALTASUNA

Puntualtasuna modu honetan labur genezake:

- Klasearen hasiera eta bukaera errespetatu.
- Klase-ordurako iritsi ezin ezkerro edo birtualki konektatu ezin ezkerro (edo klasetik ordua baino lehen edo konexiotik atera behar izanez gero), errespetuz jokatu: irakasleari zergatiak aurretiaz azaldu eta sartu edo ateratzerakoan edota konexiotik ateratzerakoan enbarazurik ez egin.
- Klasera puntual ez etortzea asistentzia faltatzen hartuko da bai eta ezarritako data eta orduetan ez konektatzea ere (5 minutuko edo gehiagoko puntualtasun ezak ordu beteko faltaren parekoa da).
- Klase-hasieraren ordutik 10 minutura irakasleak etorri gabe jarraituko balu, Zerbitzu Akademikotik abisua eman egoera konpontzen saiatu dadin (delegatua, delegatu ordea edo beste edozein ikasle).

3. HIGIENA, OSASUNA ETA SEGURTASUNA

- Erretzea debekatuta dago, baita eraikinen sarreratan eta eraikinen inguruan ere, lorategian apropos jarrita dauden tokietan izan ezik.
- Segurtasun araei kasu egin eta berauek agintzen dutena bete; eta, eskatzen denean, eraikinak hustu.
- Tailer eta laborategietako praktketan, ikasleek behar diren materialak eraman behar dituzte (amantalak, segurtasun betaurrekoak...) eta erreminta edo tresnen erabilera-arauak

⁹ Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza

¹⁰ Google-meetek gaur egun jarrita daukan epe muga da. Etorkizunean baldintza aldatuz gero, jakinaraziko da.

bete.

Laborategi eta tailerretako praktketan tresneria eta instalazioak erabiltzen hasi aurretik, bermatu erabilera-
arauak ezagutzen direla. Ezagutu ezean, galdetu irakasleari, baina inolaz ere axolagabekeriaz jokatu.

4. ORDENA ETA GARBITASUNA

Ordena eta garbitasunak ikas-irakaskuntza prozesua hobetzen laguntzen dute, eta ondorioz ikasgiroa. Ikasgiro egokia izateko, oinarrizko baldintzak bete beharko lirateke:

- Ikasgela, pasabide eta eskaileratan zakarrak botatzea ekidin.
- Klasean **jatea eta edatea debekatua** dago. Gehienez ere, mahai gainean ur botila bat izatea onartuko da.
- Mahai-aulkiak garbi izatea, margo eta idatzi barik.
- Mahai-aulkien ohizko kokalekua aldatu ezker, betiko moduan utzi berriro.
- Materialetan eta (mahai, aulki, leiho...) kalterik ez eragin; eta, nahi gabe egin ezker, *Konet* aplikazioaren bidez, eraikinen kudeaketa sailera abisua eman, dagozkion xehetasunak azalduz.
- Praktiken kasuan, lan-postuaren ordenaz arduratu eta klasea bukatzerakoan beronen garbitasuna eta txukuntze-lanetan arduraz parte hartu.

5. IKASTE-IRAKASKUNTZA PROZESUAN IZAN BEHARREKO JARRERA ETA PARTEHARTZEA

Ikaslea ikas-irakaskuntza prozesuan modu eraginkorrean parte hartzen ahalegindu behar da: edozein zalantza planteatze hutsak hausnarketa bat egin izana eskatzen duenez, norberaren ikaskuntza autonomoan ere eragiten du. Bestalde, 'peer-learning' dela medio (alegia, berdinen arteko ikasketa) elkarren arteko zalantzen planteamendu eta ebazpenaren bitartez, ikasketa sakona bultzatzen da, norbera ezezik, beste ikaskideak ere zalantzen argibideekin aberastuz.

Bestalde, ikaste-irakaste prozesuari dagokionez, ondokoak kontutan izan:

- Irakasleak berarekin lan egiteko eskatzen duenean, ariketak ebatzi, problemak etabarretako, norberak bere burua eskaintzea oso aberatsa da norberarentzat eta, oro har, klase osoarentzat: hizkuntza samurtzen da, publiko aurrean hitz egiten irakasten du...
- Garrantzitsua da, oso, irakasleak ariketak, buruketak, eta abar egin eta ebazteko eskainitako denbora aprobetxatzea; bai eta ikasgaien errebasoetan eta buruketen ebazpenetan, irakasleari zalantzak eta galderak egiteko aukera ezin hobeak baitira. Horretarako, kasuan kasuko ikasgaiari arreta eskaini eta ez beste ikasgaiari, eta klastetik kanpoko gaiak beste momentu batzuetarako utzi, adib. kirola, asteburuko joan etorriak... klasearen "haria" ez galtzeko. Bestela, ikasleak bere buruaren kalterako joka dezake, eta ikaskideari ere kalteak sortu.
- Irakasleak publiko aurrean hitz egiten duenean errespetuz arreta jarri (teoria azalpenetan zein galdera zehatzei erantzutean); eta oro har, klase osoan zehar. Klase-aldaketen denbora tarteak dituzte ikasleek iritziak kontrastatu eta aisialdirako. Klaseak modu birtualean ematen direnean norberaren ordenagailuko mikrofonoa isilik eta kamera itzalita izan behar dituzte ikasleak.
- Oro har, telefono mugikor eta portatilen erabilera baimenduta dago. Baina, gerta liteke, momenturen batetan irakasleek hauek erabiltzea galaraztea, egoerak horrela eskatzen duelako. Helburu akademikorik ez duten klase orduetako ekintzetan guztiz debekatuta dago mota honetako gailu elektronikoak erabiltzea baimenduta ez badaude.
- Telefono mugikor zein portatilak klaseak grabatu edo irudiak hartzeko erabiltzea

debekatua dago, baldin eta aurrez irakasleak horretarako baimen esplizitua eman ez badu.

- Beste kasu batzuetan ordea, irakasleak berak proposatuko du klase hasieran grabaketa egitea.

Erabaki hau irakasle bakoitzaren esku dago; baina grabaketa egitea erabaki ezker, grabatzen hasi aurretik jakinaraziko beharko die ikasleei grabaketa egingo dela. Grabaketan parte hartu nahi ez duten ikasleek klase hasieran jakinaraziko dute eta galdera/erantzunen txandari ekin aurretik grabaketa eten egingo da

- Jokabide pasiboa ekidin: galdera, buruketa eta ariketak kontzentrazioz eta astiro- astiro irakurtzea, -zuzenean egitera pasa aurretik-, ezinbestekoa da burutuko direla ziurtatzeko.

- Praktiketara bereziki, erabilitako tresneria eta ekipoen errendimendua areagotu eta praktikara emaniko denborari etekina ahalik eta handiena ateratzeko, burutu beharreko praktiken enuntziatuak alde aurretik irakurri eta landu behar dira.
- Egoera berezi edota behar puntualetarako instalazio eta tresnak erabili behar izan ezker, baimena eskatu tutoreari. Instalazioak asteburu edo jaiegunean behar izanez gero, ostegun eguardia baino lehen txartelbaimenak@mondragon.edu helbidera idatzi, alde aurretik dagokion baimena tutoreari eskatuz.
- Klasetara etortzea eta parte hartzea (modu presentzian zein birtualean), ikasleak egindako lanarekin osatu behar da. Ikasgaiak eguneko egunean landu ezker etxean, zalantzak planteatzea eta klasean aktiboa izatea egiten du posible, ezin izaten baita ikasgaiaren ezagutza guztiak azterketa-aurreko azken egunetan asimilatu.

6.ESKOLA EGUTEGIA

Eskola egutegiaren onarpena Kontseilu Errektoreari dagokio, izan ere, Kontseilu Errektoreak zehazten ditu ikasturtea hasteko datak, oporraldiak, jaiegunak eta ikasturte amaiera. Ikasleek jakin dezaten, egutegia GEPeko Intranetean argitaratzen da.

Bertan integratu dira, batetik, seihilekoan zehar lantzeko aurreikustean diren prestakuntza jarduerak, eta bestetik, konpetentzien eskuratze prozesuan ikaslearen aurrerapena neurtzeko erabiliko diren ebaluazio mekanismoak. Hori guztia seihilekoaren plangintzan jasota dago, astez aste, eta bertan eskola aldia eta eskolarik gabeko aldia biltzen da. Eskolarik gabeko aldiaren plangintzak dedikazio erreferentzia gisan baliatu behar du ikasleak, baina ez da MGEPen derrigorrez agertu beharreko denboratza jotzen.

Ez da azterketa garai instituzionalizaturik egongo, hau da, MGEPeko Koordinazio Akademikoak ez du halakorik ezarriko; ordea, titulazioaren ardura duen irakasle taldeak planifikatutako kontrolak egingo dira, erabakitzen duen denboran eta moduan, ebaluazioa eta berrikuspen nahiz erreklamazioei (baleude) jarri beharreko arreta barne.

7.ESKOLA ORDUTEGIA

Eskola ordutegia goizeko edo arratsaldeko txandetan banatua dago, ikasketak eta lana osagarri izateko helburuaz. COVID-19 pandemiaren ondorioz ordutegiak eta txandak egokitu behar izan dira MGEPen segurtasun protokoloak bete ahal izateko. Ikasle guztiek jaso dute aldaketa honen berri. Bere konplexutasun eta luzapenagatik ez dira araudi honetan jaso. Kurtso eta talde bakoitzak informazio hau Calendarren kontsultatu ahal izango du.

X. GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK.

GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAK 203/2010 DEKRETUAREN ARABERA EDOTA 971/2007 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA

1.- Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera, goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta dauden ikasleek eta Goi Mailako eta, Errendimendu Handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolari gisa egiaztatuta dauden ikasleek, honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

b) Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

c) Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lantaldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

d) 4. kurtsoan, aztertu ea ikasleak aukerarik duen praktikak eta MBLa lanaldi erdiko dedikazioaren egiteko, lanaldi osoan egin orde. Kasu horretan bermatu egin beharko da eskatzen diren ECTSak osatuko dituela, nahiz eta horretarako praktikak eta MBLa ikasturte bat baino gehiago luzatu behar izan.

e) Eskubide hauek balioesteko ikasleek Goi kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta daudela frogatu beharko dute, indarrean dagoen kasuan kasuko legediak ezarritako egiaztagiria aurkeztuz.

f) Arestian zerrendatutako egokitzapen guzti horiek gorabehera, ebaluazio proben edukia (lanak eta kontrol puntuak) ez da aldatuko.

KIROL JARDUERA INTENTSUA EGITEAGATIK AURREKOEKIN PAREKAGARRI DIREN KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAK

2.- Ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirolariak, teknikariak eta epaileak errendimendu eta maila handiko kirolarientzat ezarritako eskubideetako batzuek baliatu daitezke.

3.- Ondorio horietarako, kirol jardueratzat hartuko dira Euskal Herriko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 DEKRETUak 47. Artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztenak. Hauek dira baldintza horiek:

X. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako ikasleen eskubideak.

- Lehia izaera nabarmena.
- Lehiatzeko arauak izatea.
- Autonomia erkidegoan oso zabalduta egotea.
- Kirol errendimendua optimizatzeko, entrenamendu sistematiko eta jarraitua beharrezkoa izatea.
- Ahalegin fisikoa edo mugimendu konplexuak egitea beharrezkoa duen ekintzari loturik egotea.
- Jarduera gizakiek zuzenean egin behar izatea.
- Animaliarik egonez gero, gizakien jarduera, heziera bera kontuan hartu gabe, beharrezkoa eta garrantzitsua izatea.
- Kirol modalitatea nazioartean onartua egotea, bertako kirolen kasuan izan ezik.

4.- Honako hauek ez dira kirol modalitatetzat joko: zorizko jokoetan oinarrituriko jarduerak; jatorriz lehia oinarritzen ez diren jokoak; estrategia jokoak edo eskuen edo buruaren trebetasun hutsean oinarritzen diren jokoak; edo, berez, egoneko jokoak direnak.

5.- Era berean, ez dira kirol modalitatetzat onartuko aurretik onartuta zegoen beste kirol modalitate edo diziplina batekin bat-etortze nabariak dituzten jarduerak.

6.- Irizpide horiei kasu eginda, eskubide horien aitorpenerako, erreferentziatzat hartuko da goian aipatutako 16/2006 DEKRETUAK, urtarrilaren 31koak, bere 1 Eranskinean ezarritako kirol eta diziplinen katalogoa.

7.- Errendimendu eta maila handiko kirolari, teknikari eta epaileekin parekagarritzat joko dira baldintza hauetako bat egiaztatzen duten ikasleak:

7.1. Kirol klub batekin kontratu harremana duen kirol profesionala izatea, kirol jarduera ikaslearen bizibide nagusia izanda.

7.2. Selektzio autonomiko batean edo selektzio nazionalean parte hartzeko aukeratua izana.

7.3. Lurraldeko federazio bateko lizentzia/fitxa edukitzea, non eskatzaileak berariaz adierazi beharko baitu bere kiroleko, diziplinako eta kategoriako mailarik altueneko liga ofizialean lehiatzen dela.

Kasu horietan, maila handiko kirolari, teknikari eta epaileei edo errendimendu eta maila handiko kirolariei aurreko ataletan aitortzen zaizkien eskubideez baliatu ahal izango da ikaslea..

7.4. Halere, egoera horiei arreta egiteak ez du ekarriko inola ere ebaluazio proben edukia aldatzea (lanak eta kontrol puntuak).

8.- Kasu batzuetan, a) eta c) eskubide horiez bereberez baliatu ahal izango dira errendimendu edo maila handikoa izan ez arren –ez eta horiekin parekagarriak izan gabe ere– inguruabar jakin batzuegatik lehiaketa batean parte hartzeko edo epaile lanak egiteko beren bizilekutik 200 metro baino gehiagora bidaiatu behar duten kirolariak, teknikariak eta epaileak.

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Interesdunak abiaraziko du prozedura, aurretik aipatutako kolektiboetako bateko kide izanik II. eranskinean jasotako eskubidea beteta.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Lehen aipatutako arauen arabera (uztailaren 20ko 203/2010 Dekretua edo uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretua) Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileen baldintzak betetzen dituztela egiaztatu dezaketen kirolarien kasuan, dagokien egiaztatzea aurkeztu beharko dute, horretarako ahalmena duen Organismo Ofizialak emanda.

2.- Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileekin parekagarri diren kirolarien kasuan, kirol profesionalak badira, klubaren eta kirolariaren arteko kontratua atxiki beharko dute.

3.- Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileekin parekagarri diren kirolarien kasuan, kirolari afizionatuak badira, hauxe da beti atxiki beharko duten dokumentazioa:

a) dagokion federazioak edo selekzioak (kasuan kasuan) lizentzia/fitxa, edo biek, egindakoa.

b) Klubeko ordezkari kualifikatu batek egindako egiaztatzea, non, besteak beste, ikaslearen kirol jarduerari eskaintzen dion denboraren intentsitatea adierazi beharko den.

Halere, dokumentazioa berrikusteko prozesuan MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeak informazio gehigarria eskatu ahal izango du ebazpena emateko garrantzitsutzat jotzen dituen gaiak argitzeko.

3.- 8. Atalean aipatzen diren kirolariek, teknikariek eta epaileek atxiki behar duten dokumentazio espezifiko gehigarria: berak parte hartzen duen lehiaketa ofizialen egutegia, edo horren ordezkari bat, bere federazioak emanda, betiere dokumentu batean edo bestean adierazten bada lehiaketa non egingo den.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute (baldin eta lizentzia/fitxan matrikulatzen den kurtso berria sartzen bada) edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Bigarren kasu horretan matrikula tituluaren koordinatzaileari helarazi beharko zaio, eta hark MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuan entregatuko du.

X. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaileen gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako ikasleen eskubideak.

8. atalean aipatzen diren kirolari, teknikari eta epaileen kasuan, lehiaketen egutegiari buruzko dokumentazioa eguneratu ahal izango dute, baldin eta ezinbestean aldatu bada kirol ikasturtean. Halere, erabaki egokia hartzeko, epea malgutzea lortu nahi den mugarria baino lehen entregatu beharko du (kontrol puntua, feedbacka...)

D. ESKAERAREN EBAZPENA

MGEPeKo Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio ezarritako moduan eta epean jasotako eskaerak ebatzea..

Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio informazio gehigarria eskatzeko ahalmena, baldin eta aurkeztutako informazioa nahikoa ez bada edo eskaera behar bezala justifikatzen ez badu.

Ebazpena jakinaraztean ALDEKOA edo KONTRAKOA den esango da. Lehen kasuan, aitortutako eskubideen irismena ere adierazi beharko da. Horretarako, II. eranskinean jasotako dokumentua erabiliko da.

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

F. MAILA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEEN IZAERA INDARREAN EGOTEKO BALDINTZA

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideez baliatu ahal izateko, maila edo errendimendu handiko kirolari, teknikari eta epaile izaera aitortzen zaien kirolariek aurkezten duten egiaztagiria indarrean egon beharko da irailaren 15ean.

G. MAILA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO EKIN PAREKAGARRIA DEN KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAREN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA

Araudiaren kapitulu honetan maila edo errendimendu handiko kirolari, teknikari eta epaileekin parekagarri dienei aitortutako eskubide berberak aitortzea nahi duen ikasleek prozedura hau errepikatu beharko dute matrikulatzen diren kurtso bakoitzean.

XI. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK.

1.- Irakaskuntza, kultur, arte, ongintza eta laguntza izaerarako elkarreetan eta antzekoetan dedikazio handiz parte hartzen dutela egiaztatzen duten ikasleak atal honetan adieraziko diren eskubideez baliatu ahal izango dira..

2.- Aurreko puntuan aipatzen diren elkarreak oinarri pertsonalista duten eta irabazi asmorik ez duten erakunde pribatuak izan behar dira, xede partikularrak edo orokorrak lortzeko antolatutak eta inongo berariazko elkarre araubideren menpe ez daudenak¹¹.

3.- Eremu horretatik kanpo geratzen dira alderdi politikoak, sindikatuak enpresa erakundeak eta elkarre profesionalak, elizak, sinesteak eta erlijio komunitateak, kirol klub eta federazioak merkataritza, industria eta nabigazio ganberak, zuzenbide publikoko korporazioak, ondasun erkidegoak eta jabeen erkidegoak, kooperatibak, aldi baterako enpresa elkarreak, interes ekonomikoko elkarreak, merkataritza sozietate edo sozietate zibil gisa eraturako elkarreak, eta, orokorrean, elkartekideen artean banatzeko asmoz irabazi ekonomikoak lortzea helburu duten guztiak.

4.- Hala dela jotzeko, kasuan kasuko elkarreak Euskal Herriko Elkarreen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko da.

5.- Hauek dira ikasle horiek edukiko dituzten eskubideak:

a)Txanda, ordutegia, taldea edo tutoretza aukeratzea edo aldatzea, ikasketak entrenamenduen ordutegiekin, lehiaketa ofizialen parte-hartzeekin eta ohiko egoitzatik kanpo egindako egonaldiekin bateragarriak izango direla bermatzeko.

b) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

b) Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

c) Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

d) 4. kurtsoan, aztertu ea ikasleak aukerarik duen praktikak eta MBLa lanaldi erdiko dedikazioaren egiteko, lanaldi osoan egin ordez. Kasu horretan bermatu egin beharko da eskatzen diren ECTSak osatuko dituela, nahiz eta horretarako praktikak eta MBLa ikasturte bat baino gehiago luzatu behar izan.

e) Eskubide horiek eskuratzeko ikasleek beren jarduera egiaztatu beharko dute modu frogagarrian.

¹¹ 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarreei buruzkoa

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Interesdunak abiaraziko du prozedura, aurretik tipifikatutako elkarte batean dedikazio handiz parte hartzen duen pertsonatzat jota III. eranskinean jasotako eskubidea beteko baitu.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Elkarrearen erregistroko izen ematearen kopia bat edo, bestela, elkarrearen lehendakariak emandako egiaztigiri bat, non erregistro zenbakia eta data agertuko baita.

1.- Elkarreko lehendakariak emandako egiaztigiria, non, besteak beste, ikasleak elkarrearen jardueri eskaintzen dien denboraren intentsitatea adierazten den.

Halere, dokumentazioa berrikusteko prozesuan MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeak informazio gehigarria eskatu ahal izango du ebazpena emateko garrantzitsutzat jotzen dituen gaiak argitzeko.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Bigarren kasu horretan matrikula tituluaren koordinatzaileari helarazi beharko zaio, eta hark MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuan entregatuko du.

D. ESKAERAREN EBAZPENA

MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio ezarritako moduan eta epean jasotako eskaerak ebaztea..

Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio informazio gehigarria eskatzeko ahalmena, baldin eta aurkeztutako informazioa nahikoa ez bada edo eskaera behar bezala justifikatzen ez badu.

Ebazpena jakinaraztean ALDEKOA edo KONTRAKOA den esango da. Lehen kasuan, aitortutako eskubideen irismena ere adierazi beharko da. Horretarako, III. eranskinean jasotako dokumentua erabiliko da.

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

F. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO EALKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA.

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideak aitortzea nahi duen ikasleak eskaera hau errepikatu beharko du matrikulatzen den kurtso bakoitzean.

XII. EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK

Unibertsitatera iristen den ikasle ezgaituaren profila zehaztu ahal izateko, sailkapen hau proposatu da¹²:

- EZGAITASUN FISIKOAK
 - o Urritasun osteoartikularrak
 - o Paraplegia, paraparesia.
 - o Tetraplegia, tetraparesia.
 - o Gorputz adar bateko paralisia. Paralisi bilaterala aurreko kategoria bietan sailkatu ezina. Anputazioak.
 - o Mugimenduaren koordinazioaren nahasmenduak
 - o Nerbio sistemaren beste urritasun batzuk
 - o Beste urritasun fisiko batzuk

- EZGAITASUN ORGANIKOAK
 - o Arnas aparatuko urritasunak
 - o Aparatu digestiboko urritasunak
 - o Sistema endokrino-metabolikoko urritasunak
 - o Immunitate sistemako urritasuna
 - o Aparatu kardiobaskularreko urritasunak
 - o Aparatu genitourinarioko urritasunak
 - o Sistema hematopoietikoko urritasunak
 - o Beste urritasun organiko batzuk

- IKUSMENAREN EZGAITASUNAK
 - o Erabateko itsutasuna
 - o Ikusmenaren defizita

- ENTZUMENAREN EZGAITASUNAK
 - o Gortasun prelokutiboa
 - o Gortasun poslokutiboa
 - o Entzumenaren defizita
 - o Orekaren nahasmenduak.

- EZGAITASUN INTELEKTUALAK
 - o Ezgaitasun intelektual sakona eta larria
 - o Ezgaitasun intelektual arina
 - o Ezgaitasun intelektual ertaina
 - o Mugako adimena.
 - o Heltze atzerapena

- BURU NAHASMENDUAK
 - o Eskizofrenia
 - o Depresioa
 - o Neurosia
 - o Afektibitatearen nahasmendua
 - o Beste buru nahasmendu batzuk

- GARAPENAREN NAHASMENDU OROKORRA

¹² *Desgaitasunaren Behatoki Estatalaren 'Desgaitasuna duten unibertsitate ikasleen profila. 2011-2012 ikasturtea' izeneko liburuan jasotako sailkapena da.*

- o autismoaren espektroko nahasmendua (TEA)
- o Asperger sindromea
- o Tourette sindromea.

- NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK
 - o Antsietateak eragindako nahasmendua
 - o Gogo aldartearen nahasmendua
 - o Nortasunaren nahasmendua
 - o Elikadura portaeraren nahasmendua
 - o Estresak eragindako nahasmenduak
 - o Arreta defizitaren nahasmendua hirperaktibitatearekin (TDAH)
 - o Portaeraren nahasmenduak
 - o Nahasmendu kognitiboa.

- IKASKUNTZAREN NAHASMENDUA
 - o irakurketaren nahasmendua
 - o Kalkuluaren nahasmenduak
 - o Adierazpen idatziaren nahasmenduak
 - o Espezifikatu gabeko ikaskuntzaren nahasmenduak

- BESTE URRITASUN BATZUK

Behar bezala egiaztatutako ezgaitasuna duen ikasleak ezgaitasun hori dela-eta klaseak eta ikaskuntza edota ebaluazio jarduerak normaltasunez jarraitzerik ez badu, ondoren zehazten diren eskubideak aitortuta edukiko ditu:

- a) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

- b) Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

- d) Aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegia eta kontrol puntuak malguak izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

- d) Ebaluzio probak ezgaitasuna duten ikasleen premietara egokitu behar dira, eta lan-taldeen beharrezkoa egokitzapenak egin beharko dituzte metodologian, denboran eta espazioetan. Adibidez,
 - vi.- Kontrol puntuak ikasgela irisgarri batean egitea, edo baita aparteko gela batean ere.
 - vii.- Kontrol puntuen enuntziatuen hasierako eta bukaerako irakurketa
 - viii.- Eserlekua erreserbatzea kontrol puntuak egiteko
 - ...

- e) Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera:

- i.- Testu irakurterrazak edukitzea (letra mota eta letra tamaina, espazioak, grafikoak, etab)
- ii.- Lanak egiteko denbora gehiago ematea

- iii.- Ikus-entzunezkoak egokitzea
- iv.- Barruko eta kanpoko praktiketan hainbat egokitzapen egitea
- v.- Altzari egokituak edukitzea
- ...
- f) Ikaslearen ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egitea.

- g) Egoera horiei erantzuteak ez du inola ere ebaluazio proben edukia aldatzea ekarriko (lanak eta kontrol puntuak).

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Prozedura interesdunak abiaraziko du, ezgaitasunen bat aitortua izanik edo ezgaitasuna eragiten duen gaixotasunen bat diagnostikatuta izanik, IV. Eranskinean jasotako eskaera beteko baitu.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Ezgaitasunaren egiaztagiraren kopia bat, edo ezgaitasuna eragiten duen gaixotasuna egiaztatzen duten txosten medikoena. Informazio hori posta egiaztatu bidez bidaliko da, Jose Luis Larraberi zuzenduta, edo hari entregatuko dio zuzenean.

Dokumentazioa berrikusteko prozesuan, informazio gehigarria eskatu ahal izango da ebazpena emateko garrantzitsuak direla jotzen diren gaiak argitzeko, eta eskatzaileak emandako informazioaren konfidentzialtasuna zaindu da prozesu horretan.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Gerora gertatutako egoera bat baldin bada, edozein unetan aurkeztu daiteke.

D. DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEA ETA EZGAITASUNA DUEN IKASLETZAT HARTU BEHAR DEN ALA EZ ERABAKITZEA

XII. Ezgaitasunak dituzten ikasleen eskubideak

OSARTENi dagokio¹³ zehaztea ea aurkeztu den dokumentazioa egokia den eta ea ezgaitasuna edo **ezgaitasuna eragiten duen gaixotasuna** ikaskuntza edota ebaluazio jarduerak egoki jarraitzeko eragozpena den ikaslearentzat. Erantzuna baiezkoa bada, Koordinazio Akademikoko Taldeari jakinaraziko dio.

Koordinazio Akademikoko Taldeak ikasleak baliatu ahal izango dituen eskubideen berri emango dio ikasleari, edo beren gurasoei edo tutoreei, bai eta kurtsoko/seihilekoko PDlri ere. Jakinarazpen hau egiteko IV. Eranskina erabiliko da.

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak (edo bere gurasoek edo tutoreek, behar izanez gero) zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

F. EZAGAITASUNA DUEN IKASLEAREN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideak aitortzea nahi duen ikasleak eskaera hau errepikatu beharko du matrikulatzen den kurtso bakoitzean.

¹³ *Osarten Kooperatiba Elkarteak prebentzio zerbitzu mankomunatu bat da, eta bere misioa da enpresa elkartuetako langileen osasuna eta segurtasuna sustatzea*

XIII. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA

MUGIKORTASUNA GESTIONATZEKO EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

Ikasleen mugikortasunaren plangintza eta gestioa Nazioarteko Harremanetako koordinatzaileari dagozkio. Labor-labor, eta modu atemporalan, bertako ikasleen mugikortasuna gestionatzeko planifikatutako jarduerak xehatuko ditugu:

- ✚ ERASMUS ikasketak egiteko plaza kopuruaren aurreikuspena: Herri Administrazioarekin (laguntzen gestioa) eta Unibertsitateekin (eskuragarri dauden plazen gestioa eta hitzarmenak eta Learning Agreement izenpetzea).
- ✚ ERASMUS praktikak egiteko plaza kopuruaren aurreikuspena: Herri Administrazioarekin (laguntzen gestioa) eta enprekin (eskuragarri dauden plazen gestioa).
- ✚ Aurreko urteetako internalizazio eskaintza ikasleen artean zabaltzea, eta interes zein lehentasunei buruzko inkesta betetzeko eskatzea.
- ✚ Jasotako informazioaren tratamendua eta plazen esleipena lehentasunen arabera.
- ✚ Aldez aurreko administrazio izapideak formalizatzea (Goi Eskola Politeknikoa, ikaslea eta helburuko Unibertsitatea).
- ✚ Atzerriko egonaldia: Learning Agreement egokitzapena (Erasmus ikasketen kasuan).
- ✚ ECTS kredituen aitortpena eta metaketa, atzerriko erakundearen prestakuntza aldia behin bukatuta eta helburuko Unibertsitatean eskuratutako emaitzak kontuan hartuta.

KREDITUAK AITORTZEKO SISTEMA (UNIBERTSITATE ARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAK)

Unibertsitate arteko mugikortasun programen babesean atzerrian egonaldiak egiten dituzten ikasleen kredituen aitortpena egiteko eta kredituak metatzeko Sistemak honako oinarri hauek ditu:

- ✚ Ikasleak eta tituluaren koordinatzaileak, edo tituluaren nazioarteko harremanetaraok koordinatzaileak, egonaldian zehar ikasleak zein gai/irakasgai ikasiko dituen adosten dute, baita ikaslea Eskolara bueltatzen denean zein gai aitortuko zaizkion ere.
- ✚ Proposamena Learning Agreementean jasotzen da.
- ✚ Ikasleak jatorrizko Learning Agreementa aldatzeko proposamena egin dezake, baina aldaketa hori egiteko motiboak argudiatu behar ditu.
- ✚ Tituluaren koordinatzaileak edo tituluaren nazioarteko harremanetakoak proposamenari aski motibatua irizten badiu, aldaketa onartu egiten du.
- ✚ Ikasleak atzerriko egonaldia amaitzen duenean, Eskola honetan atera gabeko kredituak aitortu egingo zaizkio, eta eskola karga totala atzerriko erakundearen egiaztatutakoaren antzekoa izango da (Learning Agreementaren arabera).
- ✚ Aurreko ataletan jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Mugikortasun egonaldiengatik aitortutako kredituei dagozkien gaien kalifikazioa gai bakoitzean ikasleak lortutako kalifikazioaren eta gai bakoitzari esleitutako kreditu kopuruaren arteko biderkaduraren batez besteko haztatua izango da.

XIII. Mugikortasun programetan parte hartzea

-
- 📌 Lehenago adierazi den legez, ikasleen espediente akademikoan aitortutako kredituak ere jasoko dira. Kasu horretan, jatorriko irakaskuntzen gaineko informazio hau azaldu beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak, eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa.

Tituluari egindako Gehigarri Europarrean, espresuki azalduko dira, atal espezifikoko batean, ikasleek egindako mugikortasun egonaldiak: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak, eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa.

XIV. ESPARRUA ETA ESKUMENAK

Koordinazio Akademikoko Taldeak, arautegi honetan azaltzen ez diren kontuei erantzuteko, egokitzen jotzen duen nahi beste arau agindu ahal izango du.

Koordinazio Akademikoko Taldea, Arautegi honetan xedatutakoari jarraituz, ikasketa hauetan Jarduera Akademikoa zuzen garatzen dela zainduko du, eta egokitzen jotzen dituen hobekuntza proposamenak egingo ditu, Hezkuntza Komunitatea eta MGEPEko tituludunak hartzen dituzten Enpresak ahalik eta gusturen egon daitezen.

Arau hauek MU-GEPen matrikulatutako ikasle guzietan daude zuzenduta. Arauak ez betetzea, falta arin edo larritzat har daiteke, eta kasuan kasu dagokiona erabakitzeko irakaslea aski izan daiteke; edota lan-taldeko koordinatzailea, titulu koordinatzailea zein Koordinatzaile Akademikoaren parte hartzea ekar lezake. Ezarri litekeen zigorra arreata deitzetik hasi eta Eskolatik botatzeraino iris daiteke, hurrenkera honetan: ahoz atentzioa deitu, idatziz atentzioa deitu, azterketa egiteko eskubidea kendu, espedientea zabaldu, eta Eskolatik bota.

Arautegi honetan xedaturik ez dauden kasuetan, Koordinatzaile Akademikoa izango da erabakitzen duena, interesdunak aurrez hala eskatuta eta kasu bakoitzean biltzen diren inguruabarrak analizatu ondoren.

Arautegi honen gerorako aldaketak egitea Koordinazio Akademikoko Taldearen eskumen eskusiboa da, bertako edozein kidek hala proposatuz gero.

Arautegi hau 2020-2021 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

I. ERANSKINA – LAN ESPERIENTZIAGATIK LORTUTAKO KREDITUAK AITORTZEKO PROZESUA

Eranskin honetan lan esperientziagatik lortutako kredituak aitortzeko ikasleak bideratu beharreko eskabidea jasotzen da:

LAN ESPERIENTZIAGATIK ETA PROFESIONALAGATIK KREDITUAK AITORTZEKO ESKABIDEA

XXXXXXXXXXXX Masterra

Ikaslea:

NAN:

Lan esperientziari buruzko informazioa:

- Lan jarduera zein enpresatan gauzatu den, noiztik noiz arte adierazita.

1. Enpresa:

2. Enpresa:

n. Enpresa:

- Betetako postuak, egindako lanak eta horien dedikazioa

1. Enpresa:

Zereginak eta horien dedikazioa:

2. Enpresa:

Zereginak eta horien dedikazioa:

n. Enpresa:

Zereginak eta horien dedikazioa:

Eskatzailearen iritziz, bere lan esperientziarekin lortu dituen kompetentziak:

1 ALTERNATIBA: ikasgai baten edo hainbaten aitortpena eskatzea

YYYYYY gaia	Ikasgaiaren kompetentziak	Aitortpena ikaskuntzaren zein emaitzarako eskatzen den (adierazi X batez)	Aitortpena zein ikasgaitarako eskatzen den	Lan esperientziaren denbora	Adierazten den meritua
XXXXXXXXXX			XXXXXXXXXXXX		
		X			
			XXXXXXXXXXXX		

1 OHARRA: Eskatzaileak agiri bidez egiaztatu beharko du aitortzea nahi dituen konpetentziak bereganatu dituela, meritu hauetako batekin edo batzuekin,

- A. Ikerketa proiektuetan parte hartzea, bertan izandako eginkizuna zehaztuta
- B. Patenteak
- C. Argitalpen zientifikoak aldizkari espezializatuetan
- D. Biltzar eta Hitzaldietan hizlari moduan parte hartzea
- E. Interesdunak garrantzitsutzat jotzen dituen beste batzuk

2 OHARRA: Ikasleak laneko esperientzia agiri bidez egiaztatu beharko du, agiri hauek aurkeztuz:

- 📌 Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
- 📌 Zuzendariaren edo goragoko arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide eta/edo lan esperientziaren fedea ematen duena, eta horretan gutxienez agertuko dira:lan esperientziaren iraupena, eskatzaileak jardun duen lan eremua eta laneko eginkizunaren ezaugarriak
- 📌 Eskatzaileak berak egindako deklarazioa, alderdi hauek azalduko dituena:garatutako jarduera profesionala, jarduera horren bitartez lortutako gaitasun profesionalak, lortutako ezagutzak, eta aitortza zein ikasgaitarako eskatu nahi duen.

2 ALTERNATIBA: enpresetako praktikei dagozkien kredituen aitortza eskatzea

Eskatzen duzun ECTS kopurua	Egiaztatzen den esperientzia denbora

Arrasaten, 2XXX(e)koXXXXaren XX(e)an
Eskatzailearen sinadura,

Lan esperientziagatik kredituak aitortzeko erabakiak hartzea

Tituluaren taldeak honako informazio hau izango du kredituak aitortzeari buruz erabakitzeko:

Dokumentazioa:

- ◆ Interesdunaren eskabidea
- ◆ Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
- ◆ Zuzendariaren edo goragoko arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide eta/edo lan esperientziaren fedea ematen duena, eta horretan gutxienez agertuko dira:lan esperientziaren iraupena, eskatzaileak jardun duen lan eremua eta laneko eginkizunaren ezaugarriak.
- ◆ Eskatzaileak berak egindako deklarazioa, alderdi hauek azalduko dituena:garatutako jarduera profesionala, jarduera horren bitartez lortutako gaitasun profesionalak, lortutako ezagutzak, eta aitortza zein ikasgaitarako eskatu nahi duen.
- ◆ Lan esperientzian zehar metatu dituen merituen (Ikerketa proiektuetan parte hartzea, hor izandako zeregina zehaztuta; Patenteak; Argitalpen zientifikoak aldizkari espezializatuetan; Biltzar eta Hitzaldietan hizlari moduan parte hartzea, edo Interesdunak garrantzitsutzat jotzen dituen beste batzuk).

Prozesua:

Lehena.- Tituluaren taldeak eskatzaileak emandako informazioa aztertuko du eta, egokitzen joz gero, osatzeko eskatuko dio.

Bigarrena.- Ikaslea tituluaren taldearekin elkarrizketatuko da, eta bertan aztertuko da dokumentazioa egiazkoa dela eta eskatzaileak konpetentziak egiazki barneratu dituela.

Hirugarrena.- tituluaren taldeak kontraste elkarrizketa horren eta aztertutako dokumentazioaren gainean egiten duen balorazioaren arabera, erabakiko du **ikasgaia bere osotasunean errekonozitzen den (1. alternatiba)** edo **praktikei dagozkien kreditu kopuru jakin bat baino ez** den aitortzen **(2. alternatiba)**.

Ikasgaiak edo kredituak aitortzeko irizpideak:

- a) Ikasleak kredituak aitortzeko eskatzen den lan esperientziaren denborari buruzko baldintza betetzea.
- b) Kredituen errekonozimendua hainbat meritu mota metatuz lortu daiteke, horiek, tituluaren taldearen iritziz, exijitutako maila zientifiko-teknologikoa dagoela frogatzen badute.

**II.ERANSKINA- GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI,
TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN
IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA**

II Eranskina.- Goi Mailako edo Errendimendu Handiko Kirolari, Teknikari edo Epaille izaera edo horrekin parekagarri den izaera aitortzeko eskaera eta ebazpena

GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, _____, NAN zenbakidunak, _____ ikasturtean _____ tituluaren _____(e)n matrikulatuta dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, (adierazi X batekin dagokiona),

- Goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epailea da, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko, 203/2010 dekretuak aitortua (EHAA 2010.08.20), edo uztailaren 13ko, 971/2007 Errege Dekretuagatik (BOE 2007.07.25).
- Goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epailea da, kirol jarduera altuagatik
- _____(kirola), _____, diziplinan egiteak, proba/txapelketa/lehiaketa, etab. bere ohiko bizilekutik 200 Km baino gehiagora mugitzea behartzen du.

Arrazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

Interesdunaren izenpea

GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERAREN EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, MGEPeko Koordinazio Akademikoko Taldearen ordezkaritzan, _____ ikasleari jakinarazten dio irakaskuntza, goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epaille izaera edo horrekin parekagarri den izaera duen ikaslea dela aitortu dezaten aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

ALDEKOA

EZ ALDEKOA

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

Izenpea

**III. ERANSKINA.- IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA
LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO
HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA AITORTZEKO
ESKAERA ETA EBAZPENA**

**IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN
ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA
AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA**

_____ jaunak/andreak, _____, NAN
zenbakidunak, _____ ikasturtean
_____ tituluaren _____(e)n matrikulatuta
dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, (adierazi X batekin dagokiona),

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX elkartean dedikazio handia duen ikaslea dela.

Arazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), elkarteko jardueretan parte-hartzeagatik, dagokion elkarteko lehendakariaren ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikorako moldatu beharko du ikasleak.
- Praktika eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

Interesdunaren izenpea

IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERAREN EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, MGPEko Koordinazio
Akademikoko Taldearen ordezkaritzan,
_____ ikasleari jakinarazten dio
irakaskuntza, kultur, arte, ongintza eta laguntza izaerako elkarreetan eta antzekoetan dedikazio handiz parte
hartzen duen ikaslea dela aitortu dezaten aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren
ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

- ALDEKOA**
- EZ ALDEKOA**

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), elkarteko jardueretan parte-hartzeagatik, dagokion elkarteko lehendakariaren ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

lzenpea

IV. ERANSKINA.- EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIK ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA

EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIKO ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA

_____, jaunak/andreak, _____, NAN
zenbakidunak, _____ ikasturtean
_____, tituluaren _____(e)n matrikulatuta
dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, ezgaitasun aitortua duen ikaslea da.

Arrazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea, derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, betiere dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta badago.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera.
- Bere ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egin diezaiotela.
- Ebaluazio probak aitortu zaizkion ezgaitasunagatik dituen premietara egokitzeko (egokitzapenak metodologian, denboran, espazioetan, etab.)
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Eta eskaera honi jarraibidea emateko eta sinatzaileak dituen beharren balorazioa egiteko, baimena ematen dio MEGP-i ondoko datuak lagatzeko OSARTEN, S. Coop.-i (enpresa honek egingo baitu balorazioa): NAN zbkia; IZEN-ABIZENAK; KONTAKTURAKO TFOA; eta HELBIDE ELEKTRONIKOA

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEI DAGOZKIEN ESKUBIDE ETA ONUREN ESKAERAREN EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, MGEPeko Koordinazio Akademikoko _____ Taldearen _____ ordezkartzan, _____ ikasleari jakinarazten dio ezgaitasun aitortua duen ikaslea dela, aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

ALDEKOA

EZ ALDEKOA

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea, derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, betiere dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta badago.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera.
- Bere ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egin diezaiotela.
- Ebaluazio probak aitortu zaizkion ezgaitasunagatik dituen premietara egokitzeko (egokitzapenak metodologian, denboran, espazioetan, etab.)
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

V. ERANSKINA- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

**V. Eranskina- MUGIKORTASUN
EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN
EBALUAZIOA**

MASTER IKASKETAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

10/01/2020

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Índice

0. ALDAKETEN HISTORIALA	2
I.- SARRERA.....	3
II. ARAUDI HONI ATXIKITAKO KOLEKTIBOAK.....	3
III. MUGIKORTASUNAREN IRISMENA (IKASLEEK EGONALDIAN LORTUTAKO EMAITZAK EBALUATZEKO ONDORIOETARAKO)	3
IV. ATZERRIAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BIHURKETA ETA EBALUAZIOA.....	3
V. AITORTUKO DIREN ECTS KOPURUA ZEHAZTEA.....	3
VI. MGEP-EN AITORTU BEHARREKO IKASGAIK EBALUATZEKO ERA.....	4
VII. HELMUGAKO UNIBERTSITATEAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BEHIN-BEHINEKO IZAERA ETA BEHIN BETIKOA.....	4
VIII. ESPARRUA ETA ESKUMENAK	4
A ERANSKINA.- ATZERRIKO UNIBERTSITATE SISTEMEN KALIFIKAZIOAK ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALIFIKAZIOETARA BIHURTZEA	5

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

0. ALDAKETEN HISTORIALA

Bertsio zk.	Data	Egindako aldaketa
Hasierako bertsioa	2018.09.10	

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

I.- SARRERA

Araudi honen helburua da irizpideak ezartzea atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten ikasleek MGEPen egin gabe uzten dituzten ikasgaien ECTS kredituak ebaluatzeko eta aitortzeko.

II. ARAUDI HONI ATXIKITAKO KOLEKTIBOAK

Araudi hau kolektibo hau aplikatu ahal izango zaie:

A. Atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten MGEPeko ikasleak, Diploma Bikoitzaren hitzarmenik gabe (DB).

B. Atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten MGEPeko ikasleak, Diploma Bikoitzaren hitzarmenarekin (DB).

III. MUGIKORTASUNAREN IRISMENA (IKASLEEK EGONALDIAN LORTUTAKO EMAITZAK EBALUATZEKO ONDORIOETARAKO)

A.DB hitzarmenik gabe mugikortasunean parte hartzen duten ikasleak.

Ebaluatzeko ondorioetarako, ikasleak MGEPera itzultzen direnean, beraiek lortutako emaitza akademikoak behin betikoak dira, eta horrelakotzat jotzen dira ECTS kredituak aitortzeari dagokionez, alde batera utzita helmugako erakundean lehen deialdian gainditu gabeko ikasgaiak ondoren errekupearatzeko izan dezaketen aukera (adibidez, uztailean).

B. DB hitzarmenarekin mugikortasunean parte hartzen duten ikasleak.

Mugikortasunean DB hitzarmenarekin parte hartzen duten ikasleei dagokienez, MGEPera itzultzen direnean gutxiegi notak badituzte eta helmugako erakundeak aukera ematen badiete gainditu gabeko ikasgaiak errekupearatzeko, erakunde horretako errekupeazioaren emaitzaren zain geratuko gara, dagozkion aitortzak aplikatzeko.

IV. ATZERRIAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BIHURKETA ETA EBALUAZIOA

Ikasleak atzerrian lortutako kalifikazioak (zenbakizkoak zein kualitatiboak), 1125/2003 Errege Dekretuak ezarritako kalifikazio sistemara bihurtuko dira, erantsitako taularen arabera (A Eranskina), ATZERRIKO UNIBERTSITATE SISTEMETAKO KALIFIKAZIOAK ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMETARA EGOKITZEKO TAULA. Une horretatik aurrera, ebaluazio saioak deituko dira, emaitzak baloratzeko eta kasu bakoitzean dagozkion erabakiak hartzeko. Egoera normaletan, prozesu hori otsaileko ebaluazioak (1. seihilekoan) eta uztaileko ebaluazioak (2. seihilekoa) egin aurretik amaitu beharko da. Ebaluazioa burutu eta gero, notak idazkaritza birtualean argitaratuko dira, eta tituluaren koordinatzaileak ikasleei jakinaraziko dizkie ebaluazioaren emaitzak eta errekupearatu beharreko ECTSak, baldin badagokio.

Ikasleak mugitu denean izan duen helmugako Erakundean araua bada gainditu gabeko ECTSen nota EZ EGIAZTATZEA (ez kuantitatiboki ez kualitatiboki), MGEPen ulertuko da, ondorio guztietarako, kredituak ez direla egin, eta ikasleak egin egin beharko ditu, araudi honetan landu diren kasuistiken arabera, edo, bestela, bere egoera araudi honetan ez badago jasota, Koordinazio Akademikoko Taldeak erabakitzen duena bete beharko du.

V. AITORTUKO DIREN ECTS KOPURUA ZEHAZTEA

Ikasleek mugikortasun ekintzetan parte hartu ahal izango dute, atzerriko unibertsitate batean seihileko bat edo ikasturte oso bat egiteko. Helmugan ikasleek egin beharreko ekintzak jardunaldi osokoak izango dira eta, ondorioz, egonaldiko irakastorduen pareko ikasketak egin beharko lirarteke (30 ECTS seihileko baterako eta 60 ECTS ikasturte osorako). Beraz, lortutako emaitzen arabera, eta araudi honetan zehaztutako baldintzak ezarrita, MGEPen seihileko bakoitzeko 30 ECTSra arte aitortu ahal izango zaizkio.

Ikasleak helmugako unibertsitatean ECTS kopuru txikiago bat gainditzen badu, MGEPen atzerriko unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua osatzen duten ikasgaiak aitortuko zaizkio, edo aurre-aurreko kopurua. Inola ere ezingo dira aitortu helmugako unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua baino handiagoa.

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

VI. MGEP-EN AITORTU BEHARREKO IKASGAIK EBALUATZEKO ERA

Atzerrian egindako ikasketei dagokienez, tituluko ikasgaiak aitortzea erabakitzeke, lehenik eta behin, kontuan hartuko da ikasleak helmugako unibertsitateko ECTS guztiak gainditu dituen ala ez. Ikasleak ECTS guztiak gainditu baditu, tituluaren aitortu daitezkeen ikasgai guztiak helmugako unibertsitatean lortutako emaitzen batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira¹. Bestela, haztatutako nota gainditutako ECTSekin soilik kalkulatu da.

VII. HELMUGAKO UNIBERTSITATEAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BEHIN-BEHINEKO IZAERA ETA BEHIN BETIKOA

Ikasleei 2. seihilekoa MGEPen jarraitzen laguntzeko (mugikortasuna 1. seihilekoan egin bada), eta MBLa lana aurkeztu eta defendatzeko baimena emate aldera, kasleak egonaldia egin zuen unibertsitatean lortutako kalifikazioen egiaztagiri originala jaso bitartean, araudi honetako IV, V eta VI ataletan deskribatutako noten bihurteta eta ebaluazioa behin-behineko kalifikazioak kontuan hartuta egingo dira.

Halere, behin-behineko tarte horretan ezingo da mugikortasunean lortutako kalifikazioen egiaztagiririk eman, eta ez da titulua eta Tituluaren Gehigarri Europarra emateko eskaria onartuko.

VIII. ESPARRUA ETA ESKUMENAK

Koordinazio Akademikoko Taldeak zaindu egingo du arautegi honetan xedatutakoa betetzen dela, eta egoki deritzen arauak eman ahal izango ditu bertan jasota ez dauden gaietarako.

Arautegi honetan xedaturik ez dauden kasuetan, Koordinatzaile Akademikoak erabakiko du dagokiona, interesdunak aurrez hala eskatuta eta kasu bakoitzean dauden inguruabarrak analizatu ondoren.

Arautegi honetan ondorengo aldaketak egitea Koordinazio Akademikoko Taldearen eskumen eksklusiboa da, bertako edozein kidek hala proposatuz gero.

Arautegi hau 2020-2021 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

Arrasate-Mondragon, 2020ko irailaren 10a

¹ Batez besteko nota haztatua honela kalkulatu da: ikasleak helmugako erakundearen gainditu dituen kredituen batura, horietako bakoitza dagozkion kalifikazioekin biderkatuta, eta erakunde horretan egindako egonaldian gainditutako kredituen kopuru totalarekin zatituta.

A ERANSKINA- ATZERRIKO UNIBERTSITATE SISTEMEN KALIFIKAZIOAK ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALIFIKAZIOETARA BIHURTZEA

MGEPEko ikasleek eta helmugako unibertsitateek kalifikazioak aitortzeko aurkezten dizkiguten 'Transcript of Records'-etan, ECTS kalifikazioez gain, beste unibertsitate sistemetako batzuk ere ematen dira, eta, ondorioz, kasu bakoitzari dagokion kalifikazio numerikoa zehazteko taula hau erabiliko da:

[https://www.mecd.gob.es/mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha/203615/ANEXO I ESCALAS.pdf](https://www.mecd.gob.es/mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha/203615/ANEXO_I_ESCALAS.pdf)